

DATORRENA

Borne erreforma, bigarren zigorra
emazteentzat MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3

BERPIZTEKO TEKNOLOGIA:

«Berragertu ala ez berragertu?»
mamut iletsu karismatikoaren koska > 4

2023ko urtarrilaren 28a | XVII. urtea • 810. zenbakia
0,50 euro


GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



URRE ZURIAREN GATIBU BELAGUAN

SALBUESPENA DENEAN, TARTEKAKO GERTAERA, JOLASA ETA EDERTASUNA IRADOKITZEN DITU ELURRAK. EGUNEROKOA TRABATZEN ETA KORAPILATZEN DUENEAN, EZ DA HAIN ZURIA. EGUNERO HAMABI ORDUZ ERREPIDEAK ELURREZ GARBITZEN ARI DIRENEN MARTXA HORREN ADIBIDE. > 12 Andoni URBISTONDO



**Desagertutako espezieak
berpizteko bidea urratzen** 04

**Ikusmira: Peruko «Sierra»,
Limatik gero eta gertuago** 07

**Legez kanpoko lanaren tabua:
Parisko Jokoak adibide** 08

**Belaguako elurra kentzeko
makinen lana ezagutu dugu** 12

**eTwinning, baliabide digitalak
zentzuz erabiltzeko programa** 17

In fraganti: Amagoia Arrieta 22

**Aztarna ekologikoa: Marteko
ilunabar urdinduak** 26

**Ultraeskuinak ere badaki
maitasunari etekina ateratzen** 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 **Maite Ubiria Beaumont:** Borne Erreforma, bigarren zigorra emazteentzat

10 **Saioa Aginako Lamarain:** Aliaturik onenak

11 **Iñaki Altuna:** ETA, PPren komodina, baita EAJrena ere

16 **Amaia Ballesteros**

20 **Itziar Elizondo Iriarte:** Txip eta txat

21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Gezurra egiazat onartzera behartzea ez da etikoa

25 **Miren Azkarate Badiola:** Eta esango dute artikulu bat irakurtzen ari direla...

25 **Amagoia Mujika Telleria:** Zaintza

30 **Itziar Aldabe Arregi:** Adimen artifiziala eta dislexia



{ datorrena } **Maite UBIRIA BEAUMONT**

Borne Erreforma, bigarren zigorra emazteentzat

Bere Erretreten Erreforma aurkeztu zuenean, Elisabeth Bornek argudio indartsua baliatu zuen: «Erreforma hau –hitza eman zuen– justuagoa da, bereziki emazteentzat». Alta, egitasmoa aztertu ondoren, letra txikiak bestelako egoera iragartzen duela iradoki dute, hala nola, L'Obs eta Mediapart hedabideek. Besteak beste, erreformaren eraginari buruzko txostenean oinarrituta, emazte gehientzat etorkizuna ilunagoa izan daitekeela ohartarazi dute.

Txostenaren arabera, belaunaldi bakoitzeko 200.000 emaztek denbora luzeagoaz lan egin beharko dute. Gizonezkoen kasuan, ordea, belaunaldiko 170.000k. Hau da, adinaren gibelatze orokorraz gain, emazteek beste atzerapen bat jasoko dute. Datu orokorra krudela zelakoan, agian, Bornek urterotero 3.000 emaztek «lehenago ahal izango dute erretreta hartu» nabarmen-tzea hobetsi zuen. Hainbat osasun langileri, ez guztiei, aitortuko omen zaien tratamendu bereziak ekarriko lukeen hobekuntzari zenbakiak ezarri.

Gaur-gaurkoz, erretiroa hartzeko batez besteko adina 62 urtekoa da gizonen kasuan. Emazteei dagokienez, erretretara joateko batez besteko adina 62 urte eta zazpi hilabetekoa da.

Zifrak argigarriagoak dira erretreta saria aintzat hartuz gero. Gizonezkoek dagokienez, 1.931 eurokoa da batez besteko pentsioa; emazteena, 1.154 eurokoa.

Egiturazko diskriminazio hori murriztera joko du Bornek aurkezturiko erreformak? Horretan ere plazaraturiko bilanek ez dute oso toki onean uzten Emmanuel Macronen gobernu burua. Berez, gizonezkoek hobekuntza apala ekarriko lieke sistema berriak. Belaunaldien arabera aldaketak izanik ere, kasurik onenean %1era ez litzateke helduko igoera. Emazteek zerbait gehiago jasoko lukete. Beren pentsioaren hobekuntza askoz jota %2ra

helduko litzatekeelako. Papurrak. Jatorrizko egoera nola den kontuan hartuta, ahal da, egiazki, defendatu emazteentzat erretreta sistema berria justuagoa dela? Hori bera egin zuen, datu zeharo partzialak baliatuz, Bornek, eta bere hitzek boomerang efektua izan dute.

Amatasunari loturiko lan etenaldiak, zaintzari gehitutako lanaldiaren murrizketak, soldata arrakala... Horiek eta beste hainbat faktorek prekarioago bilakatzen dituzte, oro har, produkzio-adinean dauden emazte askoren bizitzak. Izan ere, erretiroa hartzeko orduan sumatuko dituzte gehienek ondorio kaltegarrienak. Mendekotasun ekonomikoa eta, egoera latzetan, pobrezia atzarparkada etor daitezkeelako lan bizitza baten bueltan.

Marko hori iraultzeko edo, besterik ez bada, aipaturiko faktore horiek konpentsatzeko moduko neurriak ja-

Lan-bizitzaren etenaldiak tartean, soldata apalagoak kobratzen dituzten emazte askok nekez ahalko dituzte Bornek iragarritako 1.200 euroko gutxieneko pentsioa kobratzeko baldintzak bete

sozten ditu erreforma berriak? Erantzun bakarra ezezko biribila da. Gizonezkoekin alderatuta, gaur egun frantses Estatuko emazteen pentsioa %30-40 baxuagoa da eta erreformaren eraginari buruz plazaraturiko hausnarketak ez du inolako hobekuntzarik aurreikusi desoreka izugarri hori murrizte aldera.

Izan ere, txostengileak argiki adierazi du zahartzaroan diru-sarrera zertxobait txukundu nahi duten emazteek aukera bakarra dutela: beranduago hartzea erretiroa.

Horrela, bide batez, Elisabeth Bornek eginiko iragarpena egiaztatuko dute: matematikoki, lan gehiago egiten badute gehiago kobratuko dutelako. Hori bai, eskas dute denbora-bizitzaren truke. •

BERPIZTEKO TEKNOLOGIA

«Berragertu ala ez berragertu?», mamut iletsu karismatikoaren koska

Ez dakigu beste era batera bizitzen. Gizakia munduan biziko bada, mundua eraldatu behar du, inpaktu bat utzi behar du, ingurumen kostu bat. Beste espezien desagertzea eragitea edo azkartzea izan ohi da inpaktu edo kostu horren adibide ikusgarriena. «Antropozeno desagerpena», «seigarren desagertzea masiboa»... zientzia literaturan no-nahi daude halako kontzeptuak. Desagertu ziren animaliak –gehienak, denak ez badira, ornodunak– berpizteko teknologiak, baina, eztabaida guztiak sutu ditu. Gaiak askotariko ondorioak ditu: zientzia, etika, baliabideen kudeaketa... Eta teknikoki egingarria ote den. Galdera askok erantzunik gabe segitzen dute.

ZIENTZIA / Mikel ZUBIMENDI BERASTEGI

Desagertutako espezieak biosferatik betiko galduak zirela uste genuen orain arte. Itzuliko ez dena ez dela itzuliko, alegia. DNAren ulermen eta sintetizazioan egindako aurrerapen itzelek, baina, ikaragarri indartu dute desagertutako espezieak berpizteko ideia, biologia sintetikoaren aplikazio onargarri moduan.


Desagertutako espezieak berpizteak, edo «desextintzioak», aldekoak eta kontrakoak ditu; bateko eta besteko argudioak daude. Alde daudenek ekosistemetan egin dugun kaltea arintzeko dugun arduraz azpimarratuko dizute: mamut iletsua edo Tasmaniako tigrea berpiztea gure bizitzeko erak eragindako ondorio okerren zuzenketa bat de-

la; desagertutako espezieek desoreka ekologikoa sortu ahal dutela, bereziki desagertzea oso azkarra bada; kontserbaziorako tresna indartsua dela, ekosistemak gainbeheratik salbatzeko eta oreka delikatuak gordetzeko. Urrutirago joanez, esango dizute berpizteko teknologia eta espezie zehatz batzuk berriz ere sartzeko helburu zeha-

tzetara bideraturiko georingeniaritza dela, klima larrialdirako aringarria; bereziki Artikoan megafauna berpizteko saioetan.

ONA ALA TXARRA? KONTRA ETA ALDE
Kontrako argudioak ere hor dabilta, eztabaidaren pil-pilean. Desagertutako animaliak berriz ere bizitzara ekartzeko behar den metodologian oinarritzen dira gehienbat. Baldin eta desagertuaren DNA sekuentzia eta bizirik mantendu den haren oso gertuko espezie bat eskuragarri badaude, zientzialariek, obulua material genetikoa editatuz, eraldatutako enbrioia ama egokiarengan ezarriko dute. Mamut iletsuaren kasuan, Asiako elefantean, hori baita haren lehengusu gertukoena. Nahiz eta desafio teknikoak (oso handiak!) konpondu, jaioko litzatekeena

Behean, mamut iletsuak hartzeko prest azaldu den Siberiako 'Pleistozenoaren parkea' deritzonaren irudia. PLEISTOCENE PARK FOUNDATION.



animalia garaikidea litzateke, baina «desagertutakoaren» ezaugarri jakin batzuekin: ilea, belarri txikiak, kortxo-kentze-koa bezalako hortzak kiribilean dituela... Baina, jakina, desagertutako animaliaaren antzinako ekosistema, egitura sozialak, populazioen dibertsitateak eta beste ez lirateke inola ere existituko; genetiko-ki haren hurbilekoa den animalia bat litzateke.

Kontrako argudioetan konterbazioaren biologiatik datozenak ere badaude. Alegia, desagertu direnak berpizten tematzen bagara, eta horretara dirutzak bideratzen baditugu, desagertzeaz dauden espezie eta ekosistemen aldeko ahaleginak konprometitu ditzakegula. Eta narratiba faltsu bat emanez, desagertzearen aurrean desagertzeaz dauden aldeko babesaren pisu


morala gutxitu dezake; desagertuak berpiztea azaleko kontu bat balitz bezala, garrantzirik gabekoa nolabait.

Gero, eztabaida filosofikoa dago. Beti azaltzen dira erreferentzia kulturalak, lotura indartsuak sortzen dituztenak: «Pandoraren kutxa» aipatzen da, edo «Prometeoren mendekua», edo «Jurassic Park» filma. Eztabaidak korapilo asko dituelako: naturarekiko harremana, finitutasuna, bizitzaz eta heriotzaz ulertzen duguna. Korapilook zaila egiten dute «desextintzioa» gauza ona ala txarra den ebaztea, behin betiko erantzun bat ematea. Eta sentimenduek ere pisua daukate, iraganeko akatsak errepi- katuko ote diren.

Kosta egiten da mamut iletsuak Siberian berpizteak izan ditzakeen onurak sinestea, izan konterbazio mailakoak izan ekologikoak edo beste maila batekoak. Baina teknologiak badu intriga-argumentua ere eta bidea urratu dezake aplikazio interesgarri edo zientzia eremu berrietarantz. Ingurumenaren dinamikez, animalien genetikaz, garapenaren biologiaz eta ingeniari-tza genetikoaz gehiago irakats diezaguke.

Eszeptizismoa osasungarria da: aplikazioak kontrolpean eta esajerazioak azpitik mantentzen laguntzen du. Nahi genuke sinetsi desagertutako animaliak naturan berriz ere askatzea, inoiz gertatzen bada, ongi pentsatutako eta hobeto landutako gizarte adostasun baten ondorioa izango dela. Nahi genuke hori pentsatu, baina, agian, desira baten adierazpena baino gehiago ez da.

Goazen xehetasunetara. Funtsean, honako hau egin nahi dute: geneen ediziorako



Lyuba, Siberiako Yamal penintsulan duela 42.000 urte bizi izan zen mamut kume emea.
WIKIPEDIA

tresnak erabilia, Asiako elefantearen, mamuten ahaide bizidun gertukoaren, genoma berregin, mamuten ahalik eta antzekoena atera dadin.

MAMUTA ALA ELEFANTE ILETSUA?

Genetikaren ingeniari-tza horretatik aterako dena, baina, zer izango da? Mamut berpiztua edo Asiako elefante iletsua? Hotzarekiko erresistentea izango dela diote, eta mamutaren aztarna biologiko gehienak gordeko dituela. Mamut iletsua bezala ibiliko dela, haren antza izango duela, haren soinuak egingo dituela. Baina mamut iletsuak bezala,

egunero ia 200 kilo belar eta landare jango ditu? Nola, bere ekosistema galdua bada? Galderak nonahikoak dira.


Ez, ez dute mamut iletsua klonatu nahi. Zientzialariek permafrostean izoztuta aurkitu dituzten mamut iletsuen DNA-a lortu duten arren, zati-katuegi eta degradatuegi dago, eta beste bide bat hautatu dute: ingeniari-tza genetikoaren bidez, Asiako elefante hibrido bat sortzea, lehen begiradan haren arbaso iletsuaren itxura bera izango lukeena. Baina zer izango da? Mamuta? Edo hotzarekiko erresistentea den elefantea? Beroa ez galtzeko, mamut iletsuak bezala, belarri motzak izango ditu? Hortz zuzenak edo kiribilak izango ditu? Bi espezieek DNAREN egituraren %99,6 partekatzen dute. Eta, hala ere, partekatzen ez duten %0,4 hori sekulako desafioa da genetika modernoarentzat.

Mamut iletsua berpizteko bioteknologiak hiru bide jorratu nahi ditu. Baga, denbo-

Eta gero eztabaida filosofikoa dago, erreferentzia kultural eta lotura indartsuez: Pandoraren kutxa, Prometeoren mendekua edo Jurassic Park filma, esaterako

Eszeptizismoa osasungarria da, esajerazioak azpitik mantentzeko. Teknologiak, baina, badu intriga-argumentua, erabilera interesgarri eta zientzia eremu berrietarako bidea





ran atzerako ugalketa edo ugalketa selektiboa, bizirik dauden espezieen antzinako ezaugarriak hartu eta indartzeko, baina gaur egungo ingurumena ordukoarekin alderatuta hain ezberdina denez, bide horrek mugak ditu. Biga, klonatzea: 1996. urtean aurrenekoz klonatu zu ten Dolly ardiarekin ikasitako guztiaren aplikazioa, nahiz eta prozesua desagertu baino lehen bizirik irauten duen azken animalietako batekin egitea errazagoa den. Eta higa, geneen edizioa eta genomika sintetikoa; bizidunak manipulatzeko funtsean, haien material genetikoa eza-batuz, aldatuz edo sekuentzia berriak txertatuz.

IRENSGARRI EGITEN LAGUNDU

Eta zein dago «desextintzio» proiektu horien atzean? Teorian, zientzialariak eta irabazi asmorik gabeko konpainiak. Teorian, bakarrik. Hor dago, nabarmen, Colossal konpainia, «desextintziorako» munduko lehena, teorian DNaren teknologiarekin, zelula amen inguruko ikerketarekin, geneen edizioarekin, umetoki artifizialekin eta besteekin

Ezkerrean, 1933an desagertu zen Thylacine martsupial haragijalearen, edo Tasmaniako tigrearen, irudia. Eskuinean, Dodoa hegazti ez hegalaria, Madagaskarretik ekialdera dagoen Maurizio uharterako espezie endemikoa, herbeheretarren kolonizazioaren ondorioz desagertua. Biak daude espezie bezala berragertzeko hautagaien artean. WIKIPEDIA

etorkizun berri bat irudikatzen ari dena. Ingeniariak kontratatzen ari da ezker-eskuin, lepo behar baititu bere proiektuetarako: genoma ingeniariak, enbriologoak, fenotipoen ingeniariak, biologo konputazionalak...

Colossal konpainiaren dokumentuak irakurri eta irudiak ikusita, konturatzen zara zientzia den neurri berean dela Hollywood-eko produkzio horietako bat, edo itxura hori duela. Hirurak bat: komunikazioa (hau guztia irensgarri egiten lagundu beharra dagoelako), zientzia eta futurismoa. Eta beldur pixka bat, edo handia, ere ematen du. Are, Colossal konpainiako babesle ekonomikoen artean CIA AEBetako espioitza agentzia dagoela jakinez gero. Zer pen-

tsatua ematen du bioingeniariatzarekiko interes horrek, beste nazioak azpiratzeko ikusten dizkioten balizko aplikazioak.

Colossal bezalako konpainiek mamut iletsua patentatuko dute? Zer erregulazio edo arau daude hemen? Espezie desagertuak modu arduratsu batean berpizteko ez dago legeriarik. Desagertzearen dauden espezieen zerrendak eta babes-arauak ez dira kasu honetan aplikagarriak. AEBetako lege federal bat, adibidez, ez litzateke aski izango, Errusia hor dagoelako bere pleistozenoko parkearen proiektuarekin, edo Australia, Tasmaniako tigrearen berpizkundearekin.

BIZITZAREN KODEAK BERRIDATZIZ

Elefanteak omen dira ekosistemen bizitasuna eta biodibertsitatea mantentzeko ekarpen nagusietakoa egiten duen espeziea. Mamut iletsuak, bere tamaina itzel, pauso gorgarri eta migrazio luzeekin, Artikoa zaintzeko ezinbestekoak izan ziren. Siberiako tundran, esaterako, mamutak bizi ziren garaiarekin alderatuta, ehun aldiz landare eta animalia masa gutxiago dago egun. Mamutak desagertutakoan karbonoa

ederto xurgatzen zuten belardiak desagertu ziren. Egungo konifero baso eta hezeguneak ez dira aldaketa klimatikoa borrokatzeko hain eraginkorrak.

Mamut iletsua ez da historiaurreko kreatura bat, ez zen hain aspaldi desagertu, K.a. 4000. urtean gutxi gorabehera; biologikoki eta geologikoki ez da hainbestearinokoa. Bizitzaren kodeak berriz idatziz, espezie bizidunen ezaugarriak aldatuz, horretan dabilzan konpainien arabera, mamut iletsuekin klima larrialdien kontrako eta mundu hobe baten aldeko zaindari naturala berpiztuko litzateke.

Zenbat ordainduko zenuke gure arbaso neandertalek ehitatzen zituzten mamut iletsuak ikusteko? Megafauna karismatikoa denez, liluratzen gaituenez, uroak, errinozero iletsuak, kobazuloetako lehoiak... negozioarako aukera dira? Aberatsendako ekologia?

Eboluzioa poliki mugitzen den piztia da. Baina XX. mendeko lerroburua ilargia zapaldu zela izan zen bezala, XXI. mendekoa desagertutako espezieak berragertzea izango dela esatea hipotesi hutsa baino gehiago da?

Megafauna karismatikoa denez, antzinatik liluratzen gaituenez, zenbat ordainduko zenuke gure arbaso neandertalek ehitatzen zituzten mamut iletsuak ikusi ahal izateko?

XX. mendeko lerroburua gizakiak ilargia zapaldu zuela izan zen bezala, XXI. mendekoa desagertutako espezieak berragertzea izango dela esatea hipotesi hutsa baino gehiago da?



Juan Carlos CISNEROS | AFP

IKUSMIRA

PERUKO «SIERRA», LIMATIK GERO ETA GERTUAGO

Espainiarren konkistak ireki zuen bidea -egia esan, bertakoei itxi ziena- jarraitu zuen Peruk independentzia lortu eta gero. Orduz geroztik, hiru Peru daude: Kostaldea, Mendilerroa ("Sierra") eta Oihana. Ameriketako herrialdeko gaur egungo krisialdi politiko larria ulertzeko orduan, Kostaldearen, batez ere Lima hiriburuaren, eta iparraldetik hegoaldera herrialdea zeharkatzen duen "Sierra"ren arteko talka kontuan hartu behar dugu. Talka baino gehiago, Limak indigena kitxuekiko eta aimarekiko duen antzinako mespretxua. Cajamarca hasita Boliviarekin muga egiten duen Punoraino, Ayacucho eta bere garaian Sendero Luminoso talde maoista sektarioak borroka armatua egin zuen beste eskualdeak ahaztu gabe. Limatarrentzat «terrucoak» baino ez diren Sierrakoek, ordea, hiribururako bidea hartu dute, fisikoki eta politikoki, eta ez omen dute gobernuak alde egin arte etsitzeko asmorik. Argazkian Dina Boluarte presidentearen dimisioa exijitzen ari da chola talde hau. Poliziak eta militarrek lasai omen daude, irribarretsu. Baina kontuz ibil daitezela, mendeetako arrazoia baitute emakume hauek. Sierra eta Lima, hain urrun, baina gero eta gertuago. Dabi LAZKANOAITURBURU

LEGEZ KANPOKO LANAREN TABUA

Parisko 2024ko Olinpiar Jokoetarako azpiegituretan legez kanpoko lan asko egiten ari da, baina isiltasuna da nagusi

Lehen begi-kolpean, ez dago ezer ez-ohikorik. Eraikuntza-lantokian Gaye Sarambounouk mailu pneumatikoa maneiatu eta hormigoia kendu behar du, miseria batez ordaindutako egunak kateatuta, kontraturik gabe, egun librerik gabe.

Azken batean, agiririk gabeko langile gisa, Frantzian duen errutinarekin jarraitzen du.

Baina, oraingoan, ez da aurrekoak bezalako lana. Parisen egingo diren Olinpiar Jokoetarako eraikuntza lanetan, 2024an Frantziaren erakuslelhoa izango diren legez kanpoko langile hauen presentziak tentsio politikoa eragin du.

Eztabaida ugari izan zen iazko abenduan Munduko Futbol Txapelketa Qatarren egin zenean. Izan ere, hango estadio eta zelai modernoak prekaritate lan baldintzen eta milaka langileren heriotzaren gainean eraiki ziren.

Emirerriaren kontrako kritikak hedatu ziren orduan Mendebaldeko herrialdeetan. Oraingoan, esplotazioa eta langileen bizitzentzako arriskua hurbilago daude, Mendebaldeko zibilizazioaren bihotzean.

Irailaren 26an lan ikuskariak Marville ur-zentrora sartu ziren, Parisko eskualdean. Hori izango da olinpiar jokoetarako entrenamenduen egoitza. «Nagusiak esan zidan: 'Ez zara berriz ere itzuliko'», gogoratu du Maliko 41 urteko gizon honek. Horietatik bost darama tza Estatu frantziarrean. Kospekoduna, aurpegi biribila,

Maliren koloreak dituen txapel bat beti soinean duela, Gaye Sarambounouk azaldu du 09.00etatik 17.00etara lan egiten zuela, baina batzuetan 19.00ak edo 20.00ak arte.

Lanaldia 80 eurotan ordaintzen zioten; 40 eurotan, larrialdi batek lehenago irtetera behartzen bazuen. Jakina, «aparteko orduak ez zizkidaten inoiz ordaindu».

«Onartu egin nuen badakidalako zein den nire egoera. Ez baduzu paperik, zaila den guttia egiten duzu, kaka guttia, ez duzu beste aukerarik», azaldu du beste lau herrikiderekin partekatzen duen gelan ura berotzen duen bitartean.

Gaye Sarambounouk ezizen batekin lan egiten du, senide baten paperak maileguan hartuta.

Berez, zaila da esatea bera bezalako zenbat dabilzan Frantziako hiriburuko iparraldeko aldiriak eraldatzen ari den obra faraoniko horretan.

Lantokietan tabua da nagusi. «Denek dakite, inork ez du hitz egiten», esan du irribarrez.

Behartua da, berriz, agintarien irribarrea, egoera lotsagarria delako.

«Hipokrisia handia dago agintari politikoen artean», laburbildu du Bernard Thibaultek, CGT sindikatuko idazkari ohi eta Paris 2024 Gutun Sozialeko Jarraipen Batzordeko kideak.

Pentsa dezakegu dokumenturik gabeko beste etorkin batzuk ari direla obretan, eta «ebidentziak» horiek erregulizatzea eskatzen du. Gaia kezagarria dela seinale, Lan Ikuskaritzak unitate espezializatu

JENDARTEA / Colin BERTIER-Boris BOZINO

Parisko 2024ko Olinpiar Jokoetako azpiegitureta faraonikoen eraikuntzan paperik gabeko etorkin asko legez kanpoko lanetan ari direla ezkututzen du azpikontratutako enpresen nebulosa batek. Lantokietan tabua eta isiltasuna dira nagusi, kaleratzeko beldurra dela eta.

bat sortu du eta bi urtetan ia leku bat gainbegiratu du egunean. Inoiz ikusi gabeko zerbait. Gainera, joan den udaberri azkartu egin da.

Ekainean paperik gabeko be-deratzi langile atzeman zituzten lantoki batean. Eta kontratatu zituen enpresa Solideo (Société de Livraison des Ouvrages Olympiques) zen, hain

zuzen ere: egoitzak eraikitzeaz arduratzen den entitate publikoa, alegia. Aldi berean, Bobignyko Fiskaltzak, Parisko eskualdean, lehen ikerketa bat ireki zuen, zehazki «ezkutuko lana» egin eta «antolatutako talde batean titulurik gabeko atzerritarrak erabili» izanaren susmopean

«Bobignyko fiskalari idatzi genion esateko eskrupulurik gabeko enpresarien aurkako prozesuarekin bat egin nahi genuela», adierazi du Nicolas Ferrand Solideoko zuzendari nagusiak, «olinpiar egoitzetan eredu emateko borondatea» dutela gaineratuz.

Gaia azaleratu zenean, «neurriak hartu genituen berehala», azpikontratista arau-hauslearen kontratua deuseztatuta, baina baita hura kontratatu zuten eraikuntzako erraldoia-



rena ere, azaldu du Antoine du Souich Solideoko Estrategia eta Berrikuntza zuzendariak.

Geroztik, erakunde publikoak «prozedurak» zorrotzu ditu eta «araudiak eskatzen duenaz harago doa», nabarmendu du.

«Ezin dugu iruzurrarekiko iragazgaitza den sistema bat eraiki», aitortu du Souichek. Onartu du «zenbait tranpatik ihes egin dutela». Helburua, bere hitzetan, «sarea estutzea» da, «tranpa-egoera larriak» identifikatzeko.

Legez kanpoko lan-sare hori Turkiako enpresa azpikontraktisten «nebulosa» batek osatzen du, Jean-Albert Guidou CGTko kidearen arabera. «Arrapaladan funtzionatzen duen sistema bat da, ikertzen dituztenean likidaziora jotzen duten enpresekin», dio sindi-

Aurreko orrialdean, paperik gabeko Maliko langile bat, legez kanpo lan egiten zuen obran sartzeko erabiltzen zuen txartela erakusten (entrenatzeko egoitza izango den Marville Aquatics Centre gunea). Ondoan, langilea, bere etxean.

Christophe ARCHAMBAULT | AFP



kalistak. Gobernuak «tentsio-ko lanetan» egoitza baimen berezia sortu nahi duen bitartean, Guidouk Olinpiar Jokoe-tako 30 bat langileri lagundu die erregularizazio izapideetan, eta horietako batzuek dagoeneko lortu dute.

«Istripu gehien izandako postuetan daude eta esplotatuta daude», deitoratu du. «Eraikuntza-obretan, doikuntza-aldagai bakarra langilearen prezioa da. Eta lana entregatzeko gogorrago lan egin behar denean, enpresa horiek ez dira kontuz ibiltzen lan-baldintzekin».

Bestalde, azpikontraktistak eta eraikuntzako erraldoiak jabetzen dira langile bat behar bezala ez dagoenean? Cheick-

nak (ez du benetako izena eman nahi) barre egin du. «Noski! Bietan paper ezberdinak eman nizkion enpresa berari eta hartu egin ninduten», gogoratu du 38 urteko maliar honek. Telefonoan, maiatzeko argazkiak erakutsi ditu. Obrako kaskoa eta kamiseta jantzita ageri da, 2024ko Olinpiar Jokoetarako luxuzko hotela izango den Tour Pleyel-eko aldamio eseki batean.

XANTAIA

Bera ere kaleratu egin zuten urrian kontrol baten ondoren. «Hau Maliko familiaren alde egiten dugu. Sakrifizio guztiak egiten ditugu helburu horrekin», azaldu du 43 urteko Moussak (anonimotasuna eskatu du segurtasunagatik).

«Estadio eder horiek guztiak jende pobreak eraikitzen ditu (...) eta esplotatu egiten dute», jarraitu du abenduan, bere funtzionamenduz publikoki hitz egin eta gero, eraikuntzalekutik manu militari kanporatu zutenetik «beldurrez» bizi den langile honek. Olinpiar Jokoak edo ez, «xantaia egiten digute», dio: «Aparteko orduak eskatzen ditugunean,

‘geratu nahi duzu edo zeure gauzak jasoko dituzu?’ erantzuten dute», dio atleten bizileku izango den eraikinean lau hilabetez pikotxa eta igeltserotza lana egin zuen gazteak.

Frantzian, hamabost urtez, Moussak beti egin du lan: lehenik garbiketari, gero zaharberritzean, orain eraikuntzan.

Gainerakoek bezala, ez du alderik ikusten olinpiar esparruaren eta aurreko lanen artean: «Lanaren %80 etorkinek egiten dute: maliarrak, portugaldarrak, turkiarrak... ikusten ditugu. Eta frantsesak... bule-goetan».

Besteak bezala, bere egoera erregularizatu nahi du, «besterik ez», bakarrik batetik bestera libre ibili ahal izateko, «identitate-kontrol baten beldurra» izan gabe.

Gaye Sarambounouk ere ez du besterik nahi. CGT bere erregularizazio-espedita aurkezteko prestatzen ari da. Hemezortzi hilabete barru lortzen badu, azkenaldiko ez-behar horiek amesgaizto izugarri bat bezala ahaztuko dira. «Jokoetarako erregularizatuta egongo nintzateke!», dio.

Zaila da esatea bera bezalako zenbat dabilzan Parisko iparraldeko aldiriak eraldatzen ari den obra faraonikoan. Lantokietan tabua da nagusi. «Denek dakite, inork ez du hitz egiten»

«Estadio eder horiek guztiak jende pobreak eraikitzen ditu (...) eta esplotatu egiten dute», adierazi du abenduan kaleratu zutenetik «beldurrez» bizi den langile honek



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Aliaturik onenak

Erabakiak hartzeko gaitasuna oinarrizkoa da gure bizitzaren edozein mailatan. Hala eta guztiz ere, batzuentzat erraza dena besteentzat oso zaila da. Jakina, zalantza jakin batzuen aurrean, erabakitzeke denbora hartzea gomendagarria da; hala ere, beste batzuek ez dute ez denborarik ez energia gasturik merezi.

Buruko blokeoak gutxien espero dugunean sortzen dira. Ia jakin gabe nola, gure errealitatea, geldirik geratuko balitz bezala hautematen dugu, ideiak isurtzen ez diren eta gure gaitasuna erabat ezabatzen den bat-bateko hutsune batean sentitzen gara. Hala, batzuek “hutsik geratzea” esaten diote, gure barruan norbaitek jarduteko eta erreakzionatzeko gaitasuna deskonektatu izan balu bezala.

Dudak, jakina, hainbat maila ditu, eta ez da beti desabantaila izaten. Izan ere, zuhurtzia lagungarria izan daiteke askotan. Hausnarketak informazio gehiago lortzen eta hobeto sailkatzen lagun diezaguke. Hala ere, dudek sakon blokea gaitzakete. Hautu bakoitza mundu bat suposatu dakiguke, eta, erabakia hartu arte, larritasunak eta estresak hartu gaitzakete, baita erruak ere, azkarrago konpontzeko gai ez izateagatik.

Blokeatzen garenean, garuna, modu errazean esatearren, etenaldian dago, eta hala dago askotan antsietate edo estres handiegia bizi dugulako. Badi-ra buru blokeoak defentsa mekanismo gisa definitzen dituztenak ere. Erreakzio horren azalpena gehiegizko emozioek gainezka egiten digutenean dago eta, karga emozional handi gisa bizi dugunaren aurrean, burmuinak edozein prozesu

gelditzea erabakitzen du, gu babesteko, barne-uholde hori arintzeko.

Horrelako fenomeno psikologikoak, nolabait ere, kalte-gabetzat jo ditzakegu noizean behin eta oso denbora laburrean esperimendatzen dugun zerbait direnean. Dena den, arazoa agertzen da blokeo mental horiek asteetan edo hilabeteetan geratzeko iristen direnean. Hori gertatuz gero, gero eta zailagoa izango zaigu gehien behar duguna gauzatzea: emozioak isurtzen uztea, blokeo hori eraisteko. Blokeo mentalak izaten ditugunean, funtsezko zerbait hartu behar dugu kontuan: zerbait puntuala da edo denbora luzea daramagu blokeoak sentitzen? Errepi-kakorra bada, ezinbestekoa da profesional espezializatuekin kontsultatzea, batzuetan gu geu gara-eta azkenak

konturatzen geure burua sabotatzen dugula eta kanpotik norbaitek ohartarazi behar gaituela.

Gure esperientziak eta horiei lotutako emozioak prozesatzea funtsezkoa da gure ongizate eta osasunarentzat. Izan ere, blokeoak gainditzeko, emozioak funtsezko iparrorratzak dira. Hautu garrantzitsuez ari garenean, erabakiak hartzeko prozesu bat egin dezakegu, informazioa bilduz eta alde onak eta txarrak alderatuz, baina eguneroko egoera txikietan hori ez da funtzionala. Gure gorputzeko sententzio fisiko zein emozionalak agertzen direnean, arreta eta lekua emateak blokeoak desegiten eta erabakiak hartzen lagunduko digu. Hasieran baliteke arraro sentitzea, baina praktikarekin gure aliaturik onenak direla ikusiko duzu. •



Erabakiak hartzeko gaitasuna oinarrizkoa da. GETTY IMAGES

saioaaginako@gmail.com

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

ETA, PPren komodina, baita EAJrena ere

Halaxe da, bada. ETaren desegitetik, erakunde horren armagabetzetik eta borroka armatuaren amaieratik, hurrenez hurren, kasik sei urte, kasik zazpi urte eta hamaika urte pasatxo bete direnean. Horretan bat egiten du azkenaldi luzean eskuinak, dela Espainia berriro gobernatu nahi duenak, dela Euskal Herriko mendebaldean –Euskal Autonomia Erkidegoa– gobernatzen segitu nahi duenak. Biek ala biek beren helburuak lortzeko, beste indarrak higitzeko eta, maiz, estutasunetik ateratzeko erabili ohi dute ETaren komodina. Oposizioa egiteko edo gobernatzeko, bietarako balio die. Ipurdia agerian geratzen direnean ere erabiltzen dute, ez dutelako beste argudiorik aurkitzen deseroso zaizkien gaiei heltzeko. Pobre eta aspergarri ere bilakatu da ETari buruzko aipamena, ateraldi hutsaren eta hutsalaren itxura hartu baitu.

Feijoo PPko buruak Sanchez Espainiako presidenteari presioa egiteko erabiltzen du, baita ultraeskuinarekin dituen itunak zurrizko ere. Nola ez dute, bada, PPkoek Voxekin gobernatuko PSOE Bildurekin –hau da, ETArekin– ari denean?

Sanchez gorriekin, independentistekin eta terroristekin ari dela diote ia egunero, eta bide batez Otegi Espainia mailako politikan buruzagi aipatuenetako bat bilakatu dute.

Indarkeria ez zela arazo nagusia ere deskubritu dugu, Feijoo kexu baita orain borroka armatuarekin baino gauza gehiago lortzen ari omen direlako ezkerreko independentistak, hori ere, antza, eskuinaren amorrurako, dela Espainia gobernatu nahi duenarentzat, dela EAE gobernatzen segitu nahi duenarentzat. Jelkideek, alabaina, beste ikuspuntu bat izan

beharko lukete, kolaborazioaren bidez Euskal Herriaren interesen arabera helburuak finkatzeko. Norbait hasiko da musika horren nota batzuk jotzen?

«DE MIGUEL» ETA OBSESIOAK

Esan bezala, estutasunetik ateratzeko erabili ohi dute ETA. Hori aipatuta arreta betikora desbideratuko dela koan. Halaxe egin zuten jelkideek “De Miguel” auzian izandako azken berrien ondotik, Espainiako Auzitegi Gorenak epaia berretsi ondotik. «Otegi ez diot entzun ETaren estortsioak ekarri zuen ustelkeriagatik autokritika egiten», adierazi zuen Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak, Bingen Zupiriak.

Unean uneko ateraldietatik harago, ordea, ETaren gaiari heltzeko asmoa eta gogoia dagoela dirudi. Beatriz Artolazabalek berriro egin du. Behar ez zen tokian, “batalla del relato” delakoan sartu da ETari so-

Sanchez gorriekin, independentistekin eta terroristekin ari dela diote ia egunero, eta bide batez Otegi Espainia mailako politikan buruzagi aipatuenetako bat bilakatu dute

rrera-sorreratik zilegitasuna kentzeko. Izango du horrek norgehiagoka politikoan asmoren bat, berehala datozen hauteskundeetan ere, ETaren jokerraren tokiz kanpoko erabileran bidez, EH Bilduren hazkunde aukerak mugatzen saiatzeko-edo. Artolazabal hautagaiaren kasuan, gainera, sakoneko obsesioa dela ondoriozta daiteke, historia modu jakin eta zehatz batean idatzi nahi duten erretxindutako sektore batzuen ordezkari gisa. Kontuz ibili beharko du, horratik, bere kontakizuna osoki saltzea lortzen ez badu. Zer esango du orduan? Euskal gizartea gaixo dagoela, espainolismo gotorrenak esaten duen moduan? •

URRE ZURIAREN GATIBU BELAGUAN



Agoizko eskualdea garbitzeko elurra kentzeko 14 makina dituzte, 600 bat kilometro denera; Erroibar, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko bailarak.

Andoni URBISTONDO

Andoni URBISTONDO

Gabonak epel joan ziren, baina urtarrilak negu gorria ekarri du Belagua aldera. Han aspaldi esaten dute saguek ez dutela negua jaten, eta beti iristen dela. Bi metroko geruza pilatu da Eraiz eta Ernaz lepoetan, errepide ertzean, eta han errepide zuria belzten aritzen den kuadrillaren egunerokoa ezagutu nahi izan dugu. Elurra kentzeko ohiko bi makinekin aritzen dira, baina baita elur kopuru handia mendialdera jaurtitzen duen turbo fresatzailearekin ere. Beharko, elurte handietan zortzi metroko elur hormak ere sortzen baitira Euskal Herriko mendate garaienean.

Gutxitan ikusten duenak, jolas moduan hartzen du elurra. Sarri ikusten duenak, aldiz, ez du ikusi ere egin nahi, oztopoak sortzen dituelako eguneroko martxan. Belaguako harana beste maila batean dago. Han dago Euskal Herriko errepide garaiena: Ernaz lepoa, 1.767 metrora. Erronkari Iboxatik Biarnora, edo alderantzizko bidea egiteko bertatik pasatu behar da derri-

gor, eta neguak, goizago edo geroago, gogor astintzen ditu paraje haiek beti, bazterrak elurtuz lodi.

Arette-San Martingo Harria eski alpinoko estazioa dago ipar isurian; La Contienda, El Ferial, Belaguako aterpea eta Mata de Hayako iraupen eskiko pistak, hego isurian. Elurrak, urre zuriak, milaka eta milaka lagun erakartzen ditu azarotik apirilera arte, eta langile kuadrilla bat Nafarroako Pirinioetako bailarako herritarren sositurri garrantzitsuena bermatzen ari-

tzen da 12 orduko lan jardunaldi gogorretan: errepideak garbitzen.

Juan Pito bentan dute egoitza, 1.200 metrora. Han dute tresneria gordetzeko biltegia, gailuak konpontzeko babesa, arazo mekanikoren bat duten aldiro Izaba edo beste herriren bateraino ez jaisteko. Julian Gabas bentako nagusiak zaintzen ditu; jaten eman, eta berotasuna eskaini eguraldia gaiztotzen denean. Atarian bost gradu zeropetik daude, eta haize demonioa, sentsazio termikoa zeropeko 15 graduraino jaitziz.

Salda bero bat hartzen ari da langile kuadrilla, solasean. Eguneko lanak goizean goiz erabaki dituzte Luisi Martin eta Ander Larrañagak, Nafarroako Lurralde Kohesio saileko kideek, eta meteorologia estazioetako informazioaren arabera.

Ander Larrañagaren hitzetan, «Agoizko eskualdea garbitzeko elurra kentzeko 14 makina ditugu; 600 bat kilometro denera, Erroibar, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko bailarak baitau-

de gure ardurapean». Garbi dituzte lehentasunak. Luisi Martin: «Errepide nagusiak, aurrena, noski, eta eskola eta mediku zentroetara iristeko bideak, ondoren. Prezipitaziorik ez dagoenean bakarrik garbitzen dugu, elurra ari badu garbitzea alferrikakoa delako».

Belaguak ematen die buruko min gehien, han egiten baitu elurra maramara. 1,15 eta 2 metro arteko elur geruza pilatu da errepidean azken denboralean, eta egunak daramatzate garbitze lanetan: «Belaguak estatus berezia du. Elurra kentzeko bi makina ditugu mendaterako bakarrik, baina baita bi turbo fresatzaile ere», dio Larrañagak. Elurra errepide ertzetara jaurtitzen duen makina ikusgarria da fresatzailea (rolba markakoa da, eta horrela deitzen diote langileek sarri).

Garbiketaren kudeaketaz arduratzen den Serveo-Lakita UTEko Mikel Oiaregi eta Julio Callejak erabakitzen dituzte mendateko lanak, Miguel Albisurekin elkarlanean. «Miguel Belaguako men-



dateko zaintzailea da; inork ez du berak bezain ondo ezagutzen errepide hau», esan du Oiaregik. Gidariak bakarrik falta zaizkigu, Pirinioetako semeak biak: Tito Garate Urzainki Burgiko semea, elurra kentzeko gailuan, eta Alfonso Iriarte Garraldakoa, Aezkoako semea, rolberoa, fresatzaileko gidaria, alegia.


MENDATE GAIZTOA DA BELAGUA

Tito Garatek daraman kamioian goaz mendatean gora. Laino itxia dago, baina prezipitaziorik ez. Errepidea, baina, zuri-zuri dago. Garate: «Belagua mendate gaiztoa da oso. Elurtegiz betea dago, eta elurrik egin gabe ere, errepidea aitaren batean estaltzen du haizeak garraiatutako elurrak. Etengabe aritu behar dugu gora eta behera, bestela ezinezkoa izango litzatekeelako ibilgai-luak aurrera egitea». Bisutsa latza da, hotza alimalekoa, baina hala ere, gailu barruan eroso doa Tito, berogailua jarrita. Sei metro kubiko gatz daramatza atzean, eta horiek sakabanatzen ditu

han eta hemen (gatzak elurra desegiten du).

Gustuko lana du Garatek errepide garbiketa, baina badu sobera atsegin ez dituen ezaugarriak: «Okerrena, sarri ez dela ezer ikusten. Tarteka geratu egin behar izaten dugu, bide ertzean dagoen hesola bilatu, eta aurrera jarraitu. Ez dago amildegi handirik bidean, asko jota elur pila baten kontra joko nuke, baina adi ibili behar dugu». Motorren eta palaren soinua ere deserosoa da. «Entzun!», esan du, leihoa jaitsiz: «Soinua jasanezina egiten da ordu asko daramatzazunean». Lasai eta presarik gabe ibiltzen da Tito: «Pentsa daiteke kamioian ezin zaizula ezer gertatu, trakzioa daukalako, baina gertatzen da. Jela beltza dagoenean (ikusten ez den jela), adi ibili behar duzu, kamioiak ez baitio eusten irristatu gabe».

Hamaika ikusitakoa da gidaria, baina aho bazarrik gabe ziurtatu du okerrena ez dela eguraldia, araei muzin egin eta gurpil egoki edo katerik gabe etortzen den jendea baizik. «Horrek izorra-



Langile kuadrilla bat Nafarroako Pirinioetako bailarako herritarren sos iturri garrantzitsuena bermatzen aritzen da 12 orduko lan jardunaldi gogorretan: errepideak garbitzen. Azarotik apirila bitartean, lan gogorra egunero

«Okerrena, sarri ez dela ezer ikusten. Tarteka geratu egin behar izaten dugu, bide ertzean dagoen hesola bilatu, eta aurrera jarraitu. Ez dago amildegi handirik bidean, asko jota elur pila baten kontra joko nuke, baina adi ibili behar dugu»



tzen du dena, errepide erdian gurutzatu eta dena katramilatzen dutelako. Kateak jartzea ez da erraza, baina gaur egun, neguko gurpilek kateak bezain eraginkorrak dira. Hobeak ere bai, ez baituzu ezer egin behar. Zenbatetan gertatu zaigu, sekulako bisutsa egon, eta jendea kateak jartzen gurpilei. Hori ezinezkoa da, ezin da denbora luzerik egin zero azpiko tenperaturarekin. Auto bat geratzen da, gero beste bat, ilara hasten da eta akabo». Garateri gertatu izan zaio Ernazeko lepotik La Contienda-raino atzerantz jaitsi beharra, gatza botatzeko, auto pilaketengatik.

Kuadrilla guztiak aipatu du tinko bide-heziketaren arazoa, baina ñabardura garrantzitsu batekin. Luismi Martin: «Ipar Euskal Herriko eta Frantziako jendeak ez dauka arazo hori. Ondo he-

zita daude, eta katerik edo neguko gurpilek ez badute, ez dira igotzen, edo ez diete igotzen uzten. Nafarroatik datozen askok, aldiz, ez dute heziketa egokirik. Etortzen dira 100.000 euroko karabanarekin, eta gurpil normalekin. Poliziak ere oso tarteka ikuskatzen du gurpilen kontua neguan, eta konturazterako sekulako iskanbila sortzen da mendatean gora».

TURBO FRESATZAILEAREN INDARRA

La Contienda gunerainoko bidea egin du Tito Garatek elurra kentzeko makinarekin. Han dago zain Alfonso Iriarte, rolberoa. «550.000 euro balio du makinak, eta 700 zaldiko motorra dauka», argitu dio kazetariari, igo eta berehala. Errepidea zabalik dago Arette-San Martingo Harria eski estazioraino, baina

Bide-heziketaren arazoa nabarmendu dute, baina ñabardura garrantzitsu batekin. «Ipar Euskal Herriko eta Frantziako jendeak ez dauka arazo hori. Ondo hezita daude, eta katerik edo neguko gurpilek ez badute, ez dira igotzen»

«Nafarroatik datozen askok, aldiz, ez dute heziketa egokirik. Etortzen dira 100.000 euroko karabanarekin, eta gurpil normalekin. Poliziak oso tarteka ikuskatzen du gurpilen kontua neguan, eta sekulako iskanbila sortzen da»

lanik ez zaio falta Iriarteri: «Aparkalekuak libratu eta garbitu behar dira, jendeak lekua izateko, eta errepideak ere ahalik eta gehien zabaldu, bi norabideetan ibilgailu bi ondo kabitzeko eta pilaketarik ez sortzeko».

Turbo fresatzaileak indar ikaragarria dauka. Bi metroko geruza duen elur horma hausten, zatikatzen du burdin hesola luze batek, eta elur parrastada fresatzailearen aurrera jausten da. Arrabola batekin elurra biltzen du Alfonso Iriartek gidatutako makinak, eta tximinia antzeko gailu baten bitartez elurra bospasei metrora jaurtitzen du. Ahalik eta urrunen, haizeak elurra errepidera bueltan ekar ez dezan. Fresatzaileak oso mantso egiten du bidea: «Hiru bat kilometro orduko, asko jota, baina elur geruza handia pilatzen den tokietan ezinbesteko bilakatu da bere erabilera. Elurra kentzeko makina arruntek ezin dute pala baino handiagoa den elur geruzan aurrera egin; turbo fresatzaileak, bai». Belaguan bi turbo fresatzaile dituzte, Suitzatik ekarritakoak, eta etengabe erabiltzen dituzte neguan.

Alfonso Iriarte La Contienda-ko apar-kalekuan utzi dugu egurrean, ipar zuriarekin borrokan. -22ko sentazio termikoak uxatuta, mendatean behera egin dugu Tito Garaterekin. El Ferial-



eraino errepidea nahiko ondo dago, baina handik Belaguako aterpera infernu zuri bilakatu da errepidea. Ordubete eskas da gorantz igo garenetik, baina errepidea zuri-zuri dago, eta arimarik ez dabil. Besteak beste, elurra kentzeko makina pasatu gabe ezinezkoa delako aurrera edo atzera egitea.

KAMIOIA ESTALTZEN ZUEN GERUZA

Garatek bost urte daramatza lanean Belaguan, eta -14 edo -15eko tenperaturak ezagututakoa da (kamioiko termometroan ikusitako tenperatura). Elur geruzari dagokionez, «kamioi osoa estaltzen zuen geruza bai, lau bat metro edo». Eraizeko lepoan izaten dituzte komeria gehien. Han Lakora mendiko babesa bukatu egiten da, eta ipar haizeak elur kopuru itzelak garraiatzen ditu Zuberoako mugetatik Nafarroarantz. Luismi Martin: «Zortzi metroko hormak ere egiten dira tarteka han, ezponden ondorioz. Puntu kritikoa da hori, mendate guztiko gaiztoena». Miguel Albisuk 20 urte daramatza Belaguan, eta 11-12 metroko hormak ezagutu omen zituen urte batzuk atzera.

Eguartea da, eta langileek etena egin dute Juan Piton bazkaltzeko. Hotzak ez du barkatzen, edo edozein janari berok neke oro berdintzen du. Arratseko

Egun hauetan elurrak bi metroko geruza marraztu du Belaguako mendatean. Altuagoak ere ikusiak daude bertako errepideetako langileak.
Andoni URBISTONDO

txandan geratuko dira batzuk, eta Luismi Martin Lurralde Kohesio saileko Zaintze Bulegoko arduradunak euren neguko jarduna laburbiltzen duen datu batzuk plazaratu nahi izan ditu, bertaraten den jendearen hobe beharrez aritzen direla gogorarazteko: «Negu arrunt batean 700 orduko lana egiten du elurra kentzeko makina batek; 1.800 ordu, fresatzaileak; 650 gatz tona erabiltzen ditugu, eta kaltzio kloruroa, aldiz, 4.2 tona. Nafarroako Gobernuak 600.000 bat euro gastatzen ditu errepide garbiketean, Belaguako mendatean bakarrik».

Egun, Ernazeko lepoan eurentzat dagoeneko mugarik ez dagoela dio Martinek: «Lehen lepoan buelta ematen genuen, baina frantziarrek ez zuten bidea irekitzen eski estazioraino. Jendea

haserretu egiten zen ez guelako irekitzen, baina guk ez genuen errurik. Orain bi aldeetako langileek bi aldeak garbitzeko hitzarmena dugu: gu goazenean, Arette-San Martingo Harri-raino joaten gara, eta eurak pasatzen direnean, La Contienda edo El Ferial-raino. Modu horretan jende gehiago etortzen da nafar Pirinioetara, baita Frantziako jendea ere, eta denontzat hobe».

Desira batekin agurtu da Luismi Martin: bide heziketan treba gaitzela, pixkanaka, eta guztion mesedetan ari diren langileekin pazientzia pixka bat izan dezagula, negua gordintzen denean. Belaguan elurrak luze iraungo duelako, eta beste enbataren bat etorri, etorriko delako. Saguek ez baitute negua jaten!

Garatek bost urte daramatza lanean Belaguan, eta -14 edo -15eko tenperaturak ezagututakoa da (kamioiko termometroan ikusia). Elur geruzari dagokionez, «kamioi osoa estaltzen zuen geruza bai, lau bat metro edo»


Negu arrunt batean 700 orduko lana egiten du elurra kentzeko makina batek; 1.800 ordu, fresatzaileak; 650 gatz tona eta kaltzio kloruroa, aldiz, 4.2 tona. Nafarroako Gobernuak 600.000 bat euro gastatzen ditu Belaguan



Amaia BALLESTEROS

IRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



ETWINNING LANKIDETZAN

Balioak oinarri, «herritar digitalizatuak izan daitezten eta baliabide digitalak zentzuz erabil ditzaten»

Europar Batasunak hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolerako duen programaren atal batek, informazio eta komunikazio teknologien bidez, irakasle-ikasleen arteko ideia trukea, lankidetzaren sustatzea eta harremanak erraztea du helburu. eTwinning hezkuntza plataforma da, eta bertan hainbat proiektu egiten dituzte «ikasleak herritar digitalizatuak izan daitezten, baliabide digitalak zentzuz erabiltzen ikas dezaten», dio Idoia Zapirain irakasle pasaitarrak... «eta arabarra», zehaztu du berehala. Izan ere, 1987. urtean joan zen Gasteizera Filologia Ingelesa ikastera, ondoren Euskal Filologia ere egin zuen bertan eta harrezkero, Trintxerperekioko harremana utzi gabe, Gasteizen bizi da. Aguraingo Aniturri eta Gasteizko Koldo Mitxelena ikastetxeetan egindako eTwinning proiektuetan zailduta, gutxi bezain ondo eman dezake Zapirainek plataforma horren nondik norako berri.

«2005ean sortu zen eTwinning eta 2014tik aurrera Erasmus+ programan dago. Europako sarerik handiena da, milioi batetik gora erabiltzaile daude erregistratuta; Estatuan, 86.500», azaldu du Idoia Zapirainek.

Ikasleen artean bezala, irakasleen artean ere beharrezkoak dira koordinazioa, elkar ulertzea, errespetua... «Guk ere ikasten dugu elkarrengandik, eta ez bakarrik erreminta digitalak dagokienez, baita metodologiari dagokienez ere».

Lortzen den komunikazioa erreal delako nabarmendu du irakasleak. «Ez da idazlan bat, esate baterako irakasleak irakurriko duena eta kito. Beren burua aurkezten dutenean, hori kanpora ateratzen da, beste batzuek irakurri edo entzungo dute, edo zure bideoa ikusiko dute. Ikas egoera sortzen da, errealitatek abiatuta, praktikotasuna agertzen duena, jendaurrean hitz egiten ikasten dugu... Ikasleei gauzak hobeto egiteko gogoia pizten zaie... denetik dago, baina oro har interes hori badago».

eTwinning plataformako proiektu bat abiatzen duten gehienak ingeles irakasleak dira, baina beste irakasgai askotako irakasleek ere parte hartzen dute haietan; izan ere, proiektuotan antolatzen diren jarduerak hainbat diziplina uztartzen dituzte. «Ingelesa ikasi eta baliabide digitalak erabiltzen trebatzen dira, baina oinarria balioak dira».

ETWINNING ENBAXADOREAK

Parte hartzen duten herrialde guztietan plataformak zentzuz erabiltzeko, beste irakasleei laguntzen dietenak, eta laguntza hori antolatzeko, koordinatzaile bat. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, esaterako, bederatzia eTwinning enbaxadore dade, tartean Zapirain. «Gure esperientzia besteekin partekatu nahi dugu, proiektu bat egin nahi duenak nola egin jakin dezaten». Gainera, irakasleentzako jardunaldiak eta praktika onak ere antolatzen dituzte. «Azken batean, irakasleek formazioa jasoko behar dugu, ezta? Irakasleek ikasleak formatzen dituzte, gure ikastetxean behintzat, eta

 HEZKUNTZA / Xabier Izaga Gonzalez

IKTen bidez lankidetzaren sustatu eta komunikazioa hobetzeko, eTwinning plataforma abiatu zuen Europar Batasunak. Hezkuntzan ikastetxeak, irakasleak eta ikasleak senidetzen dituen sare horren enbaxadore da Idoia Zapirain irakaslea. Aguraingo Aniturri eta Gasteizko Koldo Mitxelena ikastetxeetako ikasleekin eta Europako beste ikastetxe batzuekin elkarlanean garatu dituen zenbait proiektu saritu dizkiote.



plataformak guri ere eskaintzen digu prestakuntza».

Hainbat aplikazioz gainera, plataformak *on line* ikastaroak eskaintzen ditu, eta urtean behin atzerrian egiten diren ikastaro batzuetarako deialdi bat dago. Azaroan, horietako batean parte hartu zuten Zapirainek eta proiektukide batek, Portugalen, beste kide baten ikastetxean prestakuntza ematen.

eTRAIN

Irakasle bik sortu eta gidatzen dituzte proiektuak. 2020-2021 ikasturtean, Koldo Mitxelena institutuan, Zapirainek Katarzyna Siwczak Poloniako irakaslearekin batera gidatu zuen eTRAIN izeneko proiektua, iazko Europako saria irabazi zuena 16 eta 17 urte arteko kategorian. Biak dira proiektuaren fundatzaileak, baina, guztietan bezala, beste irakasle batzuk gonbidatu zituzten parte hartzera.

Proiektu horren izena akronimo bat da: tolerantzia, errespetua, ekintza (arteari ere lotua), berrikuntza eta neticen (herritartasun digitala) hitzek osatua. Europako hainbat ikastetxerekin elkarlanean egindako proiektu hori tren bidaia jasangarri baten irudikapena da. Europan zehar antolatutako geltoki birtualetan nazioarteko ikasle taldeak zeuden eta hainbat erronka zituzten. Besteak beste, turismo jasangarria, segurtasuna, kultura eta ekonomia zirkularra landu zituzten modu entretenigarrian.

eTwinning proiektu guztietan bezala, lehen pausoa elkar ezagutzeko da, eta maletak

prestatu ondoren, lehenengo geltokian zabaldu zituzten, etxean, «betiere besteen ohi-turak eta iritziak errespetatuz, norberarentzat normalak diren hainbat gauza besterentzat beharbada ez direla halakoak kontuan izanda»; izan ere, kulturartekotasuna lantzen dute, besteak ezagutu eta ulertzeko xedez. Ikastetxea zen beste geltoki bat, eta ikastetxez aldatzeko aukera zuten, besteek beren ikastetxeen inguruan idatzitakoa irakurri ondoren. Komunikazio idatzia zen, baina gero bideokonferentzia bidezko komunikazioa ere antolatu zuten eta horrela ezagutu zuten elkar. «Beste geltoki bat gaur egungo gertakariena zen. Nazioarteko hamar taldek beren interes eta abilezien araberako taldeetan sartzeko aukera zuten: argazkigintzan, ingurumenean, teknologian... Eta beren gaiei lotutako berriak bilatzen zituzten; esate baterako, pandemia garaian, zientzia albisteak edo argazkiak, horiek partekatu eta iritzi kritikoa landu zuten. Horrela lortzen zuten ikasle aktibo eta kritiko izateko gaitasunak lantzea.

Pandemia garaian garatu zuten eTRAIN proiektua. Gasteizko ikasle eta irakasleak ikasgelan zeuden, maskararekin eta bestelako neurriak hartuta, baina beste herrialdeetako proiektukide gehienak etxean itxita zeuden, «eta horrek norberaren eta besteren egoerez hausnartzeko bide ematen zien».

ON THE SPOT

eTwinning sareak urtero gai bat gomendatzen du, hori lantzea derrigorrezkoa ez den arren. 2023rako «Ongiza-

The screenshot shows the eTwinning website interface. At the top left is the eTwinning logo, and to its right is the text 'eTwinning Laguntza Zerbitzu Nazionala'. Below this is a large banner with the heading 'Europako ikastetxeetako komunitatea' and two buttons: 'Sarbidia' and 'Izena eman'. Underneath the banner is a section titled 'Azken artikulak eta berriak' (Latest articles and news). This section contains two article cards: one for 'Premio Nacional eTwinning 2022: Science in my life' dated 19 URTARRILA, 2023, and another for 'Nuevos tutoriales eTwinning' dated 12 URTARRILA, 2023. To the right of these cards is a circular graphic with various icons representing educational and social concepts, with the eTwinning logo in the center and the text 'Experiencias reales eTwinning' at the bottom.

eTwinning
plataformaren
webgunea.
eTwinning

tea” proposatu dute gaitzat, pandemiaren ondorengo egoera ikusita. 2020-2021 ikasturteko gaia desinformazioa eta alfabetatze mediatio-koa izan zen, pandemian agertu ziren gezur ugariak zirela-eta alfabetatze mediatio-koa lantzeko beharra sumatu zutelako. «Estereotipoak oso kontuan izan genituen; esate baterako, LGTBI+ kolektiboaren egoera desberdinak, leku batean, arazoak arazo, normalizatze bidean eta beste batzuetan arazo ikaragarriak, askoz handiagoak dituztela».

eTwinning hezkuntza plataformak, informazio eta komunikazio teknologien bidez, irakasle-ikasleen arteko ideia trukea, lankidetzaren sustatzea eta harremanak erraztea du helburu

Proiektuotan antolatzen diren jarduerak hainbat diziplina uztartzen dituzte. «Ingelesa ikasi eta baliabide digitalak erabiltzen trebatzen dira, baina oinarria balioak dira»

Metodologia berriekin ikasle aktiboak izatea eta ikaslea erdigunera ekartzea lortu nahi dutela dio Zapirainek. «Bera da bere ikas prozesuaren protagonista eta arduraduna. Batzuk bestearengandik ikasten dute eta ikasketa prozesuaren inguruko hausnarketa prozesua egiten dute, non dauden, zer egin duten, zer behar duten, nora heldu behar duten... Jokoak ematen dizkiegu, baina eurek ere sortu izan dituzte, ikasleek ikasleentzat egindakoak».

eTRAIN proiektuko ikasleak Batxilergokoak ziren, baina sortu zituzten jokoak beste gela batera eraman zituzten; han Dibertsifikazio Kurrikularreko ikasleak zeuden, zenbait zailtasun dituztenak, eta haiek beste proiektu bat egiten ari ziren: On the Spot izenekoak. Proiektu horrek Estatuko saria jaso zuen; «beraz, iaz, urte berean, Europako saria eta Estatuko irabazi genituen». Des-

informazioaren gaia lantzeko, Batxilergoko joko horiek hartu zituzten, zein zen onena erabaki eta euskaratu egin zuten. Beste herrialdeetakoekin aritu zirenez, Bulgaria, Italia eta Malagako ikastetxeekin, haiek ere bulgariarara, italiarara eta gaztelaniara itzuli zuten jokoak; horrela, albiste faltsuak antzemateko gida eleanitza egin zuten.

BESTE HAINBAT PROIEKTU

Koldo Mitxelena ikastetxea ez da berria diziplina arteko proiektuak egiten. «Proiektu berritzaile eta praktikoak dira, eta komunikazioa lantzen dugu. Guk, adibidez, aurreko batean Filosofia irakaslearekin landu genituen gaiak. Justizia eta injustizia, utopia eta horrelako kontzeptuak sartu genituen». Edo iragana eta etorkizuna, edo ametsak. «Iraganari buruz, herrialde bakoitzak garai bat aukeratu zuen. Guk, 1975-85 tarteak; ez zen historia eskola

bat, baina memoria historikoaz jardun genuen, esate baterako martxoaren 3az; Portugalgoek, Krabelinen iraultzaz; Pragakoek Pragako Udaberriaz, dagokion garaia aukeratuta, noski... Maiz pentsatzen dugu gazteek hori guztia badakitela, baina ez da horrela, memoria historikoa ez dute etxean jaso». Koldo Mitxelena "Memoriaren harra" proiektua daukate, eta beste irakasgaietan ere lantzen dute «beste herrialdeetan ere garai hartan edo beste garai batean zer gertatu zen ikusiz, eta horrela ikasten dute, herrialdean herrialdekoek kontatuta; gainera, besteei galderak egiteko aukera daukate».

Bigarren DBHn badute beste proiektu bat, Iruñeko Iturrinako Institutuarekin lantzen ari direna. «Steam programarekin, zientzia, teknologia, matematika, eta artea ere sartzen dira, Esero Europako Espazio Agenciaren proiektuetako baten barruan. Fisika eta Kimikako irakasleak gidatzen du, baina marrazketa artistikoa, teknologia, biologia, ingelesa eta musika ere egiten dituzte. Curriculum materialak sartzen direnez, horixe lantzen dute beste hainbat gairen bidez; esate baterako, zer material behar ditugu Marten etxe bat eraikitzeko?».

Koldo Mitxelenako beste proiektu bat, euskaraz eta ingelesez egina, Portugalera eraman zuten: Cansat. Freskagarri lata bat satellite bihurtu zuten. «Iruñeko Iturrinakoekin afinitatea dugu eta Cansat proiektuan ere elkarrekin lan egin genuen, eta harreman aberasgarri horri eutsi nahi diogu». Badute lankidetzak Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko ikastetxeen euskarazko proiektuetan –Euroeskualdekoetan– eta euskaraz egiteko aukera indartu nahi dute.



«Ez da erraza, baina ahalegin guztia egingo dugu».

SARI GEHIAGO

2013an, Aguraingo Aniturri ikastetxean kontsumo jasangarria lantzeko garatu zuten proiektu batengatik eskolarteko Consumer Classroom saria jaso zuen Zapirainek Kroaziako irakasle batekin batera.

2016-17 ikasturtean, bestalde, eTwinning Kalitate Zigilua irabazi zuen The Universe is Made of Tiny Stories egitasmoarekin. Horrelako sariak lortzeko langa oso gora dago: «eTRAIN aurkeztu genuenean, adibidez, 1.824 aukeratu zituzten; horietatik, 365; kopuru

Idoia Zapirain, Koldo Mitxelena institutuko irakaslea, Gasteizko muinoan.

Jaiizki FONTANEDA | FOKU

hori 82ra murriztu zen eta azkenean horietatik bost sari atera ziren, adinaren arabera bost kategoriatan, tartean eTRAIN». Zapirainek gogorazi duenez, beste sari bat Berango Merana ikastetxeko Lehen Hezkuntzako irakasle Maite Elejaldek jaso zuen.

BALIABIDE DIGITALAK, «NEURRIAN»

eTwinning plataformak «plus» bat daukala dio Zapirainek: «Oso segurua da». Kontrol handia dago eta edonor ezin da hor sartu. Badago proiektua gonbidatu gisa ikusteko aukera, pasahitza eskuratuta, baina lan egiteko eta ikasleekiko harremana izateko, ez.

Hiru eremu daude: ikastetxea izan daitekeen ataria, edonork irakur dezakeena eta informazioa ematen duena; irakasle gela izan daitekeen atalera irakasleak bakarrik sar daitezke, eta hirugarren atarira irakasleek erregistratu dituzten ikasleak baino ezin daitezke sar. «Azken horretan proiektu bakoitzak bere gela birtuala du, foro bat da, baina badakite ez dela *whatsapp* edo *TikTok*. Gero harremanetan jarraituko dute, eta adiskidetasunak egingo dituzte, baina plataforma ezin dute edozertarako erabili». Hau da, erabilera arduratsuaren kontzientzia hartzen dute.

«Pantaila aurrean ordu asko ematen dituztela? Jakina, ikastetxetik kanpo asko, telefonoarekin batez ere, baina ez eurek bakarrik, nagusiok ere bai, eta debekua ez da soluzioa. Adibidez, adimen artifiziala, idazlan bat egiteko, zer egin behar da? Debekatu? Ez, ikusi behar da nola erabili gure lana hobetzeko. Baliabide digitalak ondo erabilia onak dira, baina gaizki ere erabiltzen dira. Gauza guztiak bezala, beren neurrian erabili behar dira».

Metodologia berriekin ikasle aktiboak izatea eta ikaslea erdigunera ekartzea lortu nahi dutela dio Zapirainek. «Bera da bere ikas prozesuaren protagonista eta arduraduna»

«Pantaila aurrean ordu asko ematen dituztela? Jakina, ikastetxetik kanpo asko, telefonoarekin batez ere, baina ez eurek bakarrik, nagusiok ere bai, eta debekua ez da soluzioa»



Itziar ELIZONDO IRIARTE
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Txip eta txat

Pantaila zuriaren aurrean zutabearen hasierari nola heldu erabaki ezinik, googlera jo eta, azken boladan ohi denez, berriro ere ChatGPT-i buruzko artikulu batekin egin dut topo.

Gogaikarri dabil algoritmo mada-rikatua, ondo baino hobeto baitaki han hemenka nabilela komunikazio, marketin eta idazketarekin lotutako saltsetan.

Tira bada, zeure atzaparretan nauzu azkenean, atentzioaren lapur halakoa.

Aplikazioa ireki aurretik, baina, amesgaizto distopiko moduko bat dabilkit burmuinean barrena. Nik ez dut horren inguruan interes handirik izan, ez dut inon klikatu, eta beraz, cookiek ez diote algoritmoari informaziorik bidali. Gai da izaki informatiko hori jakiteko nik horren berri izan nahi dudala nik neuk erabaki aurretik? Reset egin pentsamenduari, arrazionaltasun txipean jarri eta neure buruari esan diot, ez bada, dena probabilitate kontua izango da. Eta pixka bat lasaitu naiz, baina ez gehiegi.

Horregatik, kontua ireki eta GPTkin txateatzen hasi aurretik, badaezpada ere, «adimen artifiziala euskaraz» idatzi dut bilatzailean. Bertan *berezuma.com* helbidean Beñat Erezumak sortutako edukiak ikus daitetzke, tartean adimen artifizialarekin egindako podcast bat. Webguneko bideoetan azalpen ugari daude teknologia horren erabilpenari buruz. GPT eredu bat da hizkuntza iragartzeko; txateatzen diozu zer nahi duzun (azalpen zehatz bat, gomendio bat, are istorio bat) eta ziztu bizian erantzungo dizu. Aplikazioaren sortzaileek erabat asmatu dute datuak eta informazioa



Adimen artifizialak oraindik ez daki ondo euskaraz: edukiak behar ditu ikasteko. GAUR8

txat moduan erakutsiz, gizakiok el-karrizketekin harrapatuta baikaude. Horrez gain, burmuin erraldoi horrek guk baino hamaika milioi datu gehiago dituenek, elkarrizketaren ondorioz ateratzen den testuaren "originaltasuna" guk egiten dizkiogun galderetan datza. Zeren eta, sortutako testua fintzeko, behin eta berriaz galdetu beharko diogu hark idatzitakoari.

Burmuina ez dago behar bezala entrenatuta gure hizkuntzan, gutxi irakurri duelako oraindik euskaraz, eta horren ondorioz, euskara kaskarrean erantzuten du. «Zer behar du ChatGPTk hobeto idazteko euskaraz?», galdetu diot.

«Euskarazko testu estilo eta genero desberdinetatik jasotako informazioa izan behar du, horretan entrenatuta egon ahal izateko», erantzun du.

Inteligentzia artifiziala trebeagoa izan dadin euskaraz datu dosi gehiago behar ditu. Datu iturriak batik bat sarean dauden edukietatik hartzen dituenek (wikipedia, liburu elektronikoak eta testu literarioak, albiste eta aldizkarietako artikulua, web orriak eta blogak, sare soziale-tako iruzkinak eta abar), txipa honetan jarri behar da: etorkizunak euskaraz hitz egin dezan, pertsonok eta inteligentzia artifizialak egun dauden baino askoz ere testu gehiago behar ditugu sarean. •

{ koaderno } **Xabier IZAGA GONZALEZ**

Gezurra egiatzat onartzera behartzea ez da etikoa

Bilboko manifestazioa baino lehen eta haren ostean azaldu zuten, argi asko. Azken aldiz, joan den igandean, Etxerat elkarte-ko koordinatzaile Gorka Garciak egunkari honetan. Eta Bilboko manifestazioa baino lehen eta haren ostean entzun dira manifestazio horren eta presoak etxeratzearen aurkako ahotsak. Batzuek ibilbide etikoa ere eskatzen diete euskal preso politikoei. Haien aldeko ekimenek funtsean legea aplikatzea eskatzen dute, baina batzuen ustez, legea aplika diezaieten ibilbide etikoa egin beharra daukate. Nondik nora lege batek behartu dezake inor jarrera etiko zehatz bat erakustera? Legeek oinarri etikoa omen dute, baina batzuetan, maiz, etikarekin talka egiten dute; esate baterako, salbuespenekoak eta, beraz, diskriminatzaileak direnean.

Eragindako mina onartuz edo bizikidetzaz errazteko norabidean presoek adierazpenen bat egin izan dutenean, ez dela nahikoa esan izan diete. Norainoko ibilbidea egin behar dute? Noiz arte? Garaileen eta garaituen eskema onartu eta garaileen uztai umiliagarritik pasatu arte, erromatarak samniten sarde kaudino haien azpitik nola? Alegia, alde bakarrek biolentziaren fabula onartu arte.

Alde bakar bateko presoak egoteak ez du esan nahi beste alderik ez dagoenik, beste alde horretan erabateko inpunitatea dagoela baizik. Zigorgabetasuna da, hain zuzen, gatazkaren adierazpide bortitz bien arteko alderik nabarmenena eta, horri dagokionez, bai, alde bakar bat da zigorgabeena.

Joan den astean Espainiako Gobernuak barkamena eskatu zuen Guardia Zibilak Almerian hiru gazte hiltzeraino torturatu eta erretzeagatik. 42 urte igarota. Hara zerk egin zuen hain lazgarria gertaera hura: txikitutako lagunak ETakoak ez izateak. Haiek bezala, Jo-

xe Arregi, Esteban Muruetagoiena, Mikel Zabalza, Gurutze Iantzi eta beste hainbat ere hil arte torturatu zituzten, haien torturatuak ere inpunitate kontzientzia osoa zutela, duela 40 urtetik gora eta horren aspaldi ez dela. Eta beste asko. Milaka torturatu. Haien artean, euskal preso politiko gehien-gehienak. Europako Giza Eskubideen Auzitegiak eta zentzuak diotenez, polizia etxean bakartuta eta konfiantzazko abokaturik gabe norberak edo besteek egindako deklarazioa ez da inor zigortzeko frogarria. Zenbat lagun daude horrelakoak frogatzat hartuz zigortuta?

Europar Batasuneko beste estatu batean egindako kartzela urteak aintzat hartu beharra dagoela dioen Europako erabaki markoa noiz beteko dute? Badago

Alde bakar bateko presoak egoteak ez du esan nahi beste alderik ez dagoenik, beste alde horretan erabateko inpunitatea dagoela baizik. Zigorgabetasuna da bien arteko alderik nabarmenena

beste lege bat, ordea, legea saihesteko berariaz egina. Oso etikoa ez dirudien arren.

Hamarkadetako propagandak urteetan ziega urrun batean bakartuta zeudenen artean bilatzen zituen pribilegioak edo xanpainez topa egiten zutela «informatzen» zuen. Joxe Arregi atxilotu eta galdekatu zuen polizia taldearen buruak esan zuen: «Jakina da terroristek, autolesionatu eta gero, tratatu txarren aurkako salaketak jartzen dituztela». Eta hedabideetan tortura salaketa faltsuen ipuin hark milaka torturaturen berri eman duen txostenak baino zalaparta handiagoak eragiten zituen. Non dago harako eskuliburua? Kuartelen batean? Doazela hara etika bila. •



Amagoia Arrieta, hasieran jaurtitzen den bola zuria erakusten. Jon URBE | FOKU

infraganti **AMAGOIA ARRIETA**

Amagoia Arrieta (Deba, 1974) atleta paralinpiarra da; zehazki, boccia jokalaria. Duela 27 urte luze deskubritu zuen petankaren edo curling-aren tankera duen kirol hori, eta entrenamendu askoren ondoren, munduko onenen artean izatea lortu du. Brasilgo Munduko Txapelketan bosgarren izan berri da eta Parisko Jokoak ditu begiz jota.

Abendu hasieran hartu zuen parte Amagoia Arrieta debarrak Rio de Janeiro egindako Munduko Boccia Txapelketan. Emaitza bikaina dirudi, baina gehiago lortu zezakeenaren sentipenarekin itzuli zen gipuzkoarra, bere buruari jartzen dion exigentzia maila altuaren erakusle. Garun paralisia du Amagoiak, eta hitz egiteko zailtasun batzuk ditu, baina Brasi-

len egindako lanarekin pozik geratu ote zen galdetu diogunean azkar antzeman diogu balantzea ez zela erabat positiboa izan. Eta bere ibilbidean beti aldamenen izan duen Juanjo aitak azaldu digu arrazoia: «Aulkiarekin arazoak izan zituen eta kirol honetan aulkia ez badaukazu ongi zaila da emaitza onak lortzea. Bosgarren amaitu zuen, baina guk uste dugu arazo horregatik izan ez balitz dominaren bat eskuratuko zuela».

Balantze hori ulertzeko ezinbestekoa da Amagoiak azken urteotan lortu dituen emaitza paregabeak aipatzea. Sevillan jokaturako 2021eko Europako Txapelketan brontzezko domina golkoratu zuen, eta iaz beste bi domina lortu zituen: urrezkoa Erromako World Challenger txapelketan eta zilarrezkoa, Povo de Varzim-en (Portugal) jokaturako Munduko Kopan.

Nazioarteko lehiaketak oso garrantzitsuak dira debarrentzat, rankingean gora egiteko eta Olinpiar Jokoetara sailkatzeko puntuak banatzen dituztelako. «Hirugarren eta bosgarren postuen artean, agian, 20 puntuko aldea dago», azaldu digu Juanjo Arrietak, nahiz eta, dioenez, ondo bidean, 2024an Parisko Jokoe-tan lehiatzeko arazorik ez lukeen izan beharko Amagoiak.

«Olinpiar Jokoetarako txartela ez dago arriskuan; beste bi torneo on eginez gero, ohiko postuetan ibilita, barruan beharko luke», gehitu du Juanjok –hitz horiek esatearekin batera, begirada konplizea gurtzatu dute aita-alabek-. Eta Amagoiak Tokioko Jokoe-tan gertatutakoa gogorarazi nahi izan du, ez minik gabe.

Aitak eman dizkigu xehetasunak. «Tokiora Amagoiak

joan behar zuen. Herrialdeka ez sailkatu arren, bakarkako postu bat zegokion rankingaren arabera. Arropa bidali zioten, Bilbon hotel bat ere jarri zioten burbuila egiteko... baina azkenean brasildar bati eman zioten txartela Amagoiari kenduta. Kontseiluko lehendakariordea zen... Horrelakoak gertatzen dira», hausnartu du oroitzapen mikatzaren inguruan.

HASIERATIK KIROLAZ MAITEMINDUTA

Boccia nola ezagutu zuen galdetuta, Amagoiak ederki gogoratzen du gaztetan zuen nahia. «Nik kirolen bat egin nahi nuen, eta bila hasi nintzen. ONCEk zerrenda luzea zeukan», dio. Eta, hain justu, boccia lehiaketa garrantzitsu bat egin zen Euskal Herrian garai hartan. «Etxera etorri zitzaigun esanez Gasteizen Europako Boccia Txapelketa jokatzeko zela eta ikustera joan nahi zuela. Egunero joan ginen eta kirol horrekin maiteminduta geratu zen», oroitu du Juanjok.

Jokatzen nola hasi zen, ordea, ez dute horren ongi gogoratzen; izan ere, 27 urte igaro dira lehen bolak jaurti zituenetik. Amagoiak buruan oroitzapen suelto batzuk ditu: Bergarara joaten zela entrenatzera, ordu pare batez astean; bigarren eskuko bola joko bat erosi zutela; asko gustatu zitzaiola...

Aitak ere ezin izan dio asko lagundu hasiera hura oroitzen, baina pare bat partida gogoan du bereziki, bere ibilbidearen garapena erakusten dutenak. Lehena, Amagoiak jokatu zuen lehen Espainiako Txapelketa –«15-0 galdu zuen, nolako negarrak egin zituen, 20 urte pasa izango dira»-. Eta bigarrena, inork espero ez zuen garaipena: «Ezagutzen dugu jokalaria bat, Raul, BC2 mailakoa. Ama-



Amagoia Debako kiroldegian entrenatzen da, eta bertako gimnasioan egin genion elkarrizketa. Jon URBE | FOKU

goia BC1 da, ezintasun handia-
goa dutenen mailakoa, alegia.
Bada, egun batean, Amagoiak
irabazi egin zion Rauli. Beni-
dormen izan zela gogoratzen
naiz. Espainiako jokalaria one-
netako bati, zailtasun txikiago-
ko maila batekoari, irabazi egin
zion. Eta hor esan zigun: 'Bide
onetik noa. Rauli irabazteko gai
banaiz, nahi dudana lekura hel-
du naiteke'».

«Hori duela sei bat urte izan-
go zen, eta hura ikusita, Espai-
niako selekzionarako aurkeztu
zen. Azkenean, federazioko ar-
duradunek ikusten dituzte gau-
za horiek, eta berehala kontura-
tzen dira nork daukan
gaitasuna gora egiteko», gehitu
du Juanjok, zeinak une horre-
tan kokatu baitu, nolabait,
Amagoiaren ibilbideko jauzi
garrantzitsuena.

Dordoka Kirol Elkartean sar-
tuta eta gaur egun Javi Cama-
cho entrenatzailearen eskutik,
Espainiako Txapelketa hiru ur-

tez jarraian irabazi zuen deba-
rrak, eta nazioarteko lehiakete-
tara joaten hasi zen. «Nire bizi-
tza erabat aldatu da. Lehen lan
egiten nuen eta kirola denbora-
pasa zen, aisialdian egiten
nuen zerbait; orain kirola nire
lanbide bilakatu da», onartu du
Amagoiak, bizitza horrekin po-
zik baina suposatzen duen ar-
dura handia ere ezkutatu gabe.

LEHIATZEKO GAITASUNA

Arrakasta hori lortzeko gako
nagusietako bat Amagoiak ten-
tsio handiko uneetan inguruaz
ahaztu eta jokoan soilik pen-
tsatzeko duen gaitasuna dela
azpimarratu digu Juanjok.

«Alde batetik, bere entrena-
tzeko modua dago. Bere sekre-
tutxoak ditu –aita bera ere as-
kotan kanpora bidaltzen omen
du kontzentratu ahal izateko–,
azken batean gauza txiki asko
ongi egiteak ekartzen dituelako
gero emaitza onak. Automatis-
mo asko ditu barneratuak. Eta

bestetik, lehiatzeko duen gaita-
suna. Aurreko selekzionatzai-
leek horregatik esaten zioten
"La Roca" ("Harkaitza"), ez dela
inoiz bere bidetik ateratzen.
Denek gauza bera nabarmen-
tzen dute Amagoiaz: berdin-
berdin zaio munduko txapel-
dunaren aurka edo hasiberri-
baten kontra jokatzeari».

Eta, noski, jarrera hori aban-
taila handia da lehiatzeko or-
duan. «Amagoiak gauza bat
dauka: oso ongi jasaten du ten-
tsioa. Hautatzaileek esaten di-
gute Amagoiak puntu bat

**Kirolen bat probatu nahi zuen gaztetan eta
Gasteizen jokaturako Europako Boccia
Txapelketa ikustera inguratu zen. Erabat
maiteminduta geratu omen zen**

**Parte hartu zuen lehen Espainiako Txapelketan
15-0 galdu zuela gogoratu du Juanjo aitak.
Negarrez amaitu zuen lehiaketa, baina entrenatu
eta hobetzeko asmo sendoarekin**

gehiagorekin hasten dituela
lehiaketak, aurkariak beldurtu
egiten direlako bere kontra jo-
katu behar dutenean. Amagoia
oso lasaia delako. Eta beste ba-
liabide bati ere zuku handia
ateratzen dio: "azken bola" dei-
tzen zaiona. Zuk pentsa dezake-
zu partida irabazita daukazula,
baina Amagoiak azken bolare-
kin dena irauli dezake. Povoan
horixe egin zuen, adibidez»,
gogoratu du Juanjo Arrietak.

ESTRATEGIAREN GARRANTZIA

Behin puntu honetara iritsita,
komeni da bocciaren arauak
apur bat errepasatzea, Ama-
goiaren lorpenek duten meri-
tua hobeto ulertzeko. Banaka,
binaka eta taldeka (hirunaka)
jokatzen da. Jokalari bakoitzak
sei bola ditu: batek gorriak eta
besteak urdinak. Zozketa bidez
erabakitzen da nor hasten den
jaurtitzen. Horrek lehenik bola
zuria jaurtitzen du, eta ondo-
ren berari dagokio gorriekin jo-
koari ekitea. Gero urdinekin jo-
katzen duenak jaurtitzen ditu
eta, hortik aurrera, galtzen doa-
nak, alegia bola zuritik urrutien
dagoenak, jaurti behar du. Hel-
burua nork bere koloreko bolak
zuritik aurkariarenak baino
gertuago uztea da. Partida ba-
koitzean lau partzial jokatzeko
dira –taldekakoan sei– eta lor-
tutako puntu guztiak batzen di-
ra azken emaitza erabakitzeko.

Argi dago zehaztasuna ga-
rantzitsua dela, baina batez
ere estrategia kirola da boccia.
«Batzuetan zuria jotzea eraba-
kitzen da, beste batzuetan aur-
kariaren mugitzea edo defen-
tsa bat egitea... Pentsa zenbat
urte daramatzadan joko hau ja-
rraitzen, eta batzuetan esaten
diodanean 'Amagoia, nik hau
egingo nuke', berak ezetz esa-
ten dit», onartu du Juanjok.

«Povoan Bermuda Irltako
neska baten aurka jokatzeko ari



Aulkiak sekulako garrantzia du lehiaketetan, eta aulkia onik iristea izaten da atzerrira egindako bidaietan kezka nagusia. Jon URBE | FOKU

zen, eta partida ia ezinezkoa zeukan, hark bola zuria ingurata zeukalako haren bola urdinekin. Nik galdutzat ikusi nuen. Baina azken jaurtiketan zuria jo, bere bola gorrietara inguratu eta partida 4-0 irabazi zuen», gaineratu du, adibide moduan, Amagoiaren aitak.

«Azkenean hemen tenisean eta gertatzen den gauza bera gertatzen da: txapelketa nagusi ia guztietan antzeko jokalariek elkarren aurka jokatzen amaitzen dute. Elkar ongi ezagutzen dute eta badakite bakoitzak nola jokatzen duen; hori ere ikasten joaten dira. Jokaldi batzuei, adibidez, hori egin ohi duen jokalar baten izena jartzen diegu. Aurkariaren bolen eta zuriaren artean sartzeari, adibidez, 'Leti' esaten dio, askotan hori egiten dion aurkari bat duelako», kontatu digute sekretutxo moduan aita-alabek.

Eta ezagutza horretatik abiatuta ohikoa da jokalar bati bes-

tearen baliabideak eta estrategiak erabiltzen saiatzea: «Adibidez, oso garrantzitsua da jaurti aurretik boxean aulkia egoki kokatzea, norabide egokian. Normalean aurkariak boxean bertan mugitzen dira ezker-eskuin. Amagoia, aldiz, atzera etortzen da eta aulkiarekin gerturatzeko joaten da kokapen egokia hartzeko. Eta eskuekin markatzen du norabidea. Eta orain beste batzuk hasi dira gauza bera egiten».

Alde horretatik, kontuan izan behar da behin partida hasita jokalariek ezin dutela inolako komunikaziorik izan kanpoko pertsonekin, bolak eskatzeko ez bada. «Epaileak une oro kontrolatzen dituzte komunikazioak. Hor ere tranpa asko egoten delako. Eta kontuz ibili behar da. Azkenean ni Amagoiaren partida bat ikusten ari naizenean nahigabe ere keinuak egiten ditut, jaurtiketa bat ez zaidalako gustatu, oso

ona iruditu zaidalako edo nik beste modu batera egingo nukeelako, eta epaile batek keinu hori mezua izan dela pentsa dezake».

BABESAK ETA ZAILTASUNAK

Kirolari bizitza duintasunez gartzeko laguntza nahikoa ote duten galdetuta, Juanjo Arrietak onartu digu Amagoiaren gaur egungo egoera eskertzeko dela, baina goi-mailara iritsi arte gauzak oso bestelakoak izaten direla.

Behin goi-mailara iritsita laguntza politik omen dituzte atleta paralinpiarrek, baina horra iritsi arteko ibilbide luzean gastu ia guztiak norberak ordaindu behar ditu, eta ez dira gutxi

Asko bidaiatzen du orain Amagoiak hegazkinez, eta kezka nagusia bere aulki garestia nola iritsiko den ikustea izaten da. Kexu da aireportuetan oso gaizki tratatzen dutelako

«Amateurra zaren bitartean zuk egin behar diezu aurre gastu guztiei, baina iristen da momentu bat, gure kasuan bezala, non errendimendu altuko kirolari izendatzen zaituen Kirol Kontseilu Gorenak (CSD), eta hor laguntza sorta eder bat daukazu. Hainbat beka daude, bizitzeko aukera ematen dizutenak. Baina horra iritsi artekoa oso garestia da», dio Amagoiaren aitak.

Gastuak, batez ere, bidaietan –«ahal genuen guztietan berekin joan nahi izaten genuelako, eta hori ez du federazioak ordaintzen»– eta aulkian –«haue-tako bat ez duzu 9.000 eurotik behera erosiko eta, noski, goi mailara iritsi aurretik erosi behar duzu, zure poltsikotik jarrita»– pilatzen dira. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaile dituzten SD Eibar, Kirolgi, Basque Team eta Debako kiroldegiari.

Eta salaketa bat ere bai, aireportuetan aulkiak zein gaizki tratatzen dituzten ikusita. «Bidaietako kezka bakarra aulkia izorratzea izaten da. Zeren aulkia matxuratuta itzultzen zaigu bidai guztietatik. Ekipajearekin batera fakturatzeko dugu. Txekiar Errepublikan, adibidez, hegazkinetik ikusi zuen nola tratatzen zuten aulkia, eta berria erosi beharko zela pentsatuz etorri zen».

Baietz dio Amagoiak: «Atzeko aldea ireki zioten, kableak kendu... Batez ere, garrantzitsua da kirolerako. Bizitza normala ia edozein aulkirekin egin dezaket, baina kirola egiteko nire aulkia behar-beharrezkoa dut». Baina zailtasunak zailtasun, oso argi du kirola dela gehien gustatzen zaiona eta horretan jarraitu nahi duela beste urte luzez. •

Eta esango dute artikulu bat irakurtzen ari direla...

Garraio publikoa aldian-aldian erabiltzen duten horietakoa naiz betidanik. Gehienbat autobusa eta noizean behin trenare ere bai. Bidaia horiek betidanik oroitzen ditut liburu batekin eskuetan irakurtzen, minutu horietan zehar nire munduan sartu eta horrela aprobeztatzeko. Orain aitortu beharra daukat pixka bat mareatzen naizela, ez dakit adina izango den edo beste azalpenik ote duen, aztertu beharko dut.

Aspaldian, baina, ez dut ikusi inor liburu bat edo egunkaria paperean irakurtzen, eta azkenaldian, horretan jarri

nahi izan dut arreta. Azkenean, aurreko batean bat ikusi nuen arte. Hunkitu eta guzti egin nitzen! Malkoa justu-justu begi ertzean nuela geratu nintzen aurrean ikusten ari nintzen eszenarekin. Noiztik halako egoerarik parez pare suertatu gabe?

Duela urte batzuk arrunta zen zerbait orain pantailen eta teknologia berrien erruz estintzioan dagoen zerbait bilakatu da, edo bilakatu dugu. Liburu edo egunkariak (hemen ere) mugikorrenatik ordezkatu ditugu, niri pertsonalki beldurra emateraino. Zeren eta ez da soilik ez dugula paperean irakurtzen, ez,

ez... Ez dugu ondokoarekin hitz egiten, ez dugu leihotik begiratzen eta paisaia ikusten, eta urtebete eskas duten haurrei ere 15 minutuko bidaia batean ez diegu abesten... Dena pantaila zikin batek ordezkatu du! Helduenengandik haur jaioberrienganaino, adinaren araberako bereizketarik gabe! Eta esango dute artikulu bat irakurtzen ari direla...

Ez dut esan nahi hobekuntzarik ez dutenik ekarri pantailak eta deitu nazazue 'erromantikoa' paperaren gorazarre egiteagatik, baina autobusetan ere gai honek eskuetatik ihes egin digula iruditzen zait. •

**Miren AZKARATE
BADIOLA**

Zaintza

Amagoia MUJIKATELLERIA

Zaintza. Aspaldiko ekintza da, betidanikoa. Baina hitzak berria dirudi. Eta hitz berriekin gertatu ohi den bezala, beldur naiz gastatu arte erabiliko dugula, azalpenik gertatu, mamira iritsi gabe.

Irakurketa argigarria eta benetan interesgarria izaten ari da "M ama* eme* ume*". Zorionak Estitxu Fernandez eta Erika Lagomari. Amatasunaz eta zaintzaz, oso modu anitzean eta epaiketa kutsurik gabe. Uste dut batzuetan ez dugula amatasunaz hitz egiten epai-tuak izateko beldurra dugulako. Ama "onak" nolakoa izan behar duen gehiegitan entzun dugu eta apenas kabitzen

da inor neurri estu horietan. Horregatik akaso lasaitasuna ematen du ama izateko modu asko daudela konturatzeak, eta denak direla ama onak eta ama txarrak, eta bi gauzak aldi berean.

Gureak ere esaten du, amatasuna bizitza osorako dela. Seme-alabak handitu eta zahartu arren, haiek zaintzeko eta babesteko beharra -itolarrria batzuetan- azken unera arte sentitu ohi duela amak. Zaindua izan behar duenean ere, ingurukoak zaintzen.

Hori gure etxean ikusitakoa naiz. Amona zenarekin arratsaldea ospitalean eman eta haren kezka bakarra etxera joateko, umeei afaria eman

beharko niela. «Zu hemen atso zahar hau zaintzen eta umeak etxean amaren zain». Eta beste emakume batzuei ere sumatu diet zaintzeko larri hori. Beren azken uneetan, zaintza behar handia dutenean, emakume asko kezkatuago egoten da «ingurukoei ematen dien lanaz» bere osasun makalaz baino. Beti besteei begira, beti besteentzat. Zein tristea den konturatzea noraino sartua dugun emakumeok bigarren mailako herritar izatearen zama hori. Hori ez da azalekoa, sustrai sendoak ditu eta azalaren azpiraino iristen da, batzuetan mina ematen duen ziztada forman. •



AZTARNA EKOLOGIKOA

Unai Garcia Martinez Ingurumen Teknikaria

Marteko ilunabar urdinduak

«Alien» hitzak kanpotar esan nahi du; gizaki egiten gaituenetik aldentuta bizitzea. Kapitalismoak bizitzaren kanpo existitzea posible dela sinetsarazten digu. Horregatik batzuei ez die minik eragiten ihes egiteak, ez direlako inongoak ezta inorenak ere, ez direlako ezerekin konektatuta sentitzen, diruarekin ez bada.

Lurrak 'Theia' ize-neko protoplane-ta batekin egin zuen talka haurtzaroan, gazteek helduei errespetua zietenean, duela 4.530 milioi urte. Bien elementu pisutsuenak batu eta Lurraren zentroan hondoratu ziren. Arinenek espaziorantz jo eta pare bat orbita egin ondoren beste

gorputz bat eratu zuten. Gertakari hark bizitzaren garapenean funtsezkoak izango ziren urtaroak ahalbidetu zituen, Lurraren errotazio-ardatza okertu baitzuen. Gainera, Ilargiaren grabitazio-erakarpinak planetaren barneko metal geruza likidoa dantzan jarri zuen, eremu magnetiko globala sortuz, milioika urteren buruan garatuko zen atmosfera



Olivier DOULIERY | AFP

eguzki-haizetik babestuko zuena.

Martek, aitzitik, ez zuen izugarrizko talka hori jasateko zortea izan, eta Hernaniren tamaina izatera heltzen ez ziren bi harri xume erakartzea lortu

zuen bakarrik, dantzan ezer gutxi jartzeko gai zirenak. Laku eta itsasoak izan zituen antzina, bizitza akaso, barnealdea hoztu zen eta mugitzeari utzi zion arte. Magnetosferarik gabe (eta masa eskasa izan-

Otsailaren 4an
PLAZA HUTSA
Burlatako Kultur Etxean

Izen ematea >



da), Martek gaur egun ezin du behar bezalako atmosfera bat atxiki. Eguzkirako distantzia aproposa izan arren, atmosfera finegia du bizitzak behar dituen baldintzak garatzeko. Ez du oxigenorik, ezta gauez -130°C egitea ekidingo lukeen berotegi efektuko gas apurrik ere. Ez du ur likidorik, ezta molekula organikoak sunsitzizen dituen erradiazioaz babesteko ozono geruzarik ere.

Hala eta guztiz ere, Lurrean badira eguzki-sistemako lau garren planeta gure espeziearen etorkizuneko babesleku gisa ikusten dutenak. Antza, aberats batzuek etsi egin dute eta ihesbide bila dabilta. Ezagunena Elon Musk da, ehun urte barru Marten milioi bat pertsonako kolonia bat ezartzeko lanean (lanean?) diharduen supergizon intergalaktikoa.

ELON MUSKEN PLANA

Bere plana hurrengo da: mila espazio-ontzi eraikitzea, bakoitza hamar aldiz erabil daitekeena eta ehun pertsona garraiatzeko modukoa. Ez ditu oraindik ebatzita ontzi eta propulsaizailen berrerabilerak eta horien Lurrerainoko itzulerak sortzen dituen zailtasunak, are gutxiago bidaiarien segurtasuna, baina 2023. edo 2024. urterako lehen prototipoak prest izatea espero du, tripulaziorik gabe lehen tresna eta ekipoak eramaten hasi litezkeenak.

Momentuz, Martera pertsona bat bidaltzeak hamar milioi dolar inguru balio du (60.000



dolar janari kilogramo batek), baina aurrerapen teknologikoak baliatuz txartela 200.000 dolarretan uztea espero du (bere hitzetan, ia edonork ordain dezakeen prezioa). Espazio-ontzi bakoitzak ehunka mila litro erregai behar ditu soilik Lurretik irteteko, gainera.

Bidaiaren kontua ebatzita, planeta gorriko lehen biztanleek bertan bizirik irautea posiblea dela frogatu beharko lukekela dio Noe espazialak. Arnasteko behar duten oxigenoa sortu, elikagaiak (barazkiak, batez ere) bertan ekoitzi eta hondakin guztiak birziklatu (gorotzak barne). Seguruenik, lur azpian ere bizi beharko lukete, erradiazioetik eta tenperatura baxuetatik babesteko. Hau da, Marten bizirik irauteko, aberatsek bizimodua zeharo aldatu beharko lukete, era askoz xumeago batean bizi.

Ehun urte barru, ezer egiten ez badugu, Lurrean bizitza ez

Elon Musk aberats sonatuak (alboko orrialdean) ehun urte barru Marten milioi bat pertsonako kolonia bat ezartzea du buruan. Hori da Lurra bizigarria ez denerako buruan duen plana. Lerro hauen gainean, astronauta bat Marten.
GETTY IMAGES

da posible izango milaka milioi pertsonentzat. Ez litzateke errazagoa, jadanik aldeko baldintza biofisikoak dituen planeta honetan, sektore pribilegiatuek bizimodua aldatzea? Ez da parasitismo kapitalistaren gailurra, gutxi batzuk salbatzeko (hondamendiaren erantzule nagusiak, gainera), atzean geratzen direnen lurrak eta baliabideak ustiatzea? Lau mila milioi urteko eboluzioa bere burua babestu dezakeen bizitza konplexua eratze-ko, eta horren etorkizuna

beste planeta batean berriro hasteko fantasia bidera ezina omen da, non bizitza, existitu izan balitz, ingurumen faktoreen ondorioz desagertu zen. Lurreko antzinaroko kobazuloetatik Martekoetara eraman nahi gaituzte, antza.

Oinazeak murrizteko larrialdietarako balazta aplikatzea eta hemen geratuko diren aldaketetara moldatzea tekniko-ki eta ekonomikoki bideragarria da, baina eliteek nahiago dute zientzia fikziozko teknoutopiak bultzatu haien bizimoduan eraldaketa sakonak ezarri baino.

Txikitan beti egin dut amets Marte esploratzearekin. Bertako krater zaharretan mineral bitxiak bila ibiltzearekin, antzinako bizitzaren arrastoak aurkitzen lehena izatearekin, aire ezak baimentzen duen isiltasunean bertako ilunabar urdinak gozatzearekin. Orain, nire ametsetan eliteek beren kaka jaten dute.

Ehun urte barru, ezer egiten ez badugu, Lurrean bizitza ez da posible izango milaka milioi pertsonentzat. Ez litzateke errazagoa sektore pribilegiatuek bizimodua aldatzea?

Ez da parasitismo kapitalistaren gailurra, gutxi batzuk salbatzeko (hondamendiaren erantzule nagusiak, gainera), atzean geratzen direnen lurrak eta baliabideak ustiatzea?

JENDARTEA ZATITZEN

Kontzeptu bateraezinak diruditen arren, ultraeskuinak ere badaki maitasunari etekina ateratzen

Ultraeskuinak azken urteotan mendealdeko demokrazietan izan duen gorakadak mugimendu eta alderdi horien politika egiteko moduarekiko interesa suspertu du. Ideologia horiek gorroto-diskurtsotik soilik eraikitzen direla adierazten duten orokortzeen aurrean, Unibersitat Oberta de Catalunya (UOC) bi ikertzailek proposatzen dute espainiar Estatuko korrante politiko horrek etekin handia ateratzen diela maitasunari eta beste sentimendu positibo batzuei, nahiz eta ikuspegi propio baten bidez egiten duen, familiaren, nazioaren eta berdintasunaren inguruan biratzen duena.

Alexandre Pichel, UOCeko Humanitate eta Komunikazio doktoretza programako ikertzaileak, eta Begonya Enguix, Arte eta Giza Zientzien Ikasketetako irakasle eta "Generoak Trantsizioan: Maskulinitateak, Afektuak eta Gorputzak (MEDUSA)" taldeko ikertzaile buruak, ultraeskuindarrek espainiar Estatuan maitasuna nola erabiltzen duten aztertu dute artikulu zientifiko batean, eta proposatzen dutenez korrante politiko hori «arbuioetik hara-tago doazen» sentimenduek eragiten dute.

BAZTERTUTAKO ERREALITATEA

2020ko martxoaren 8an, espainiar Estatuan pandemiaren ondorioz konfinamendua ezarri baino egun batzuk lehenago, eta hainbat hiritan mar-txa feminista ugari egiten ziren bitartean, VOXek ekitaldi

bat antolatu zuen Madrilgo Vistalegre jauregian. Han, Diputatuen Kongresuko hiru-garren indar politikoak bere argudio gehienak azaldu zituen. Egun hartako hitzaldi nagusiak aztertu ondoren, alderdiko liderrek maitasuna jendartea zatitzeko nola erabiltzen duten deskribatu eta horren inguruan hausnartzen dute aipatutako bi ikertzaileek.

«Ideologia kontserbadore-nak maitasuna erabiltzen du ezkerrek, mainstream eskui-nak edo beste edozein ideologiak erabiltzen duen helburu berdinarekin. Aktore politiko honek ez du maitasuna erabiltzen bere benetako aurpegia ezkutatzeko, bere balioekin identifikatzen ez direnak ar-buiatzeko. Korrante politiko honek maite du, baina arazoa da zer maite duen. Espainia mononazional eta baztertzaile-maite du. Ultraeskuinak gorrotoa sortzen du maite dituen gauzengatik, baina maitasuna guztiz erreala da», dio Alexandre Pichelek.

Alde horretatik, ikertzaileek artikuluaren zehazten duten bezala, maitasuna tresna gisa erabiltzen da gu (familia tradizionalak, gizon zuriak eta natibo espainiarrak) eta bes-teen artean, izan elitea (agintariengan eta feminismoan pertsonalizatua) edo desberdinak direnak (familia ez-tradizionalak edo migratzaileak), aldea markatzeko. Horretarako, beren diskurtsoetan, ultraeskuineko liderrek familiare-kiko harremanaren, berdintasunaren eta indarke-riaren bidez ematen diote forma sentimendu horri.

POLITIKA / GAUR8

Unibersitat Oberta de Catalunya-ko ikertzaileek ultraeskuinak patriarkalak eta baztertzaileak izan daitezkeen balioak maite dituela uste dute. Maitasuna Estatu espainiar kontserbadoreenaren eta feminismoa zein genero-berdintasunerako politiken defentsaren arteko zatiketa sortzeko erabiltzen da.

FAMILIA TRADIZIONALA

Familia tradizionalaren defen-tsa diskurtso ultrakontserbado-rearen giltzarrietako bat bihurtu da azken hamarkadan. Ildo horretan, ikertzaileek egiaztatu dute diskurtso horietan femi-nismoa eta LGBTQI mugimen-dua familia-unitate mota baten mehatxu nagusitzat jotzen di-rela, eta familia-unitate hori de-

la «normal eta natural» baka-rra. Gainera, Pichelek eta Engui-xek beren artikuluaren ondorioz-tatzen dutenez, familia hori lotura zuzena da aurreko belau-naldien iraganarekin, tradizioa-rekin eta kultura-ondarearekin, hau da, diskurtso kontserbado-reenaren zutabeetako batzue-kin.

Adituek diotenez, familiari buruzko ideia kontserbadoreek familia tradizionalaren aurka-koen (feminista eta LGBTQI per-sona gisa identifikatuak) eta espainiar Estatuko sexu- eta ge-nero-balio naturalak, naziona-lak eta moralak babesteko, maitatzeko eta transmititzeko prest daudenen arteko muga politi-koak markatzeko balio dute. Ikertzaileek diotenez, doktrina politiko horren diskurtsoan, «feministek, queer ikuspuntua dutenek eta ezkertiarrek traizio



egiten diete nazioaren arau moralei, eta Espainia eta familia tradizionala suntsitu nahi dituzte».

BERDINTASUNA

«Ultraeskuinaren berdintasuna gizarte guztiz uniformearen ideiatik sortzen da. Herria uniforme bada, ezinezkoa da desberdintasuna egotea», dio Alexandre Pichelek. «Aitzitik,

Maitasuna tresna gisa erabiltzen da gu (familia tradizionala, gizon zuria...) eta besteen artean, izan elite (agintariak, feminismoa...) edo desberdin (migratzaileak...), aldea markatzeko

Familia maite dute aitaren nagusitasuna babesteko; herrialdea gizonak lider nazional gisa erreskatatzeko, eta berdintasuna gizonak defendatzeko feminismoaren aurrean



Ezkerrean, Vox alderdi ultraeskuindarraren ordezkariak kolpe frankistaren urteurrenean Loiolako kuartelean egindako ekitaldia. Eskubian, Santiago Abascal Arrasaten egindako ekitaldi batean.

Jon URBE - Jaizki FONTANEDA | FOKU

ezkerreko mugimenduetatik eta feminismotik, berdintasuna komunitate ireki bat sortzeko desberdintasunak ulertu eta agerian uzten dituen kontzeptu gisa ulertzen da. Zentzu horretan, ultraeskuinak uste du genero-kuotak genero-berdintasunari ezarritako mugak dirrela, ez baitu ulertzen desberdintasunak zehazteko beharra. Gauza bera aplikatzen dio sexu-hezkuntzari eskoletan. Berdintasunaren ideia horrek korrante ultrakontserbadoreak gizarte uniforme maskulinizatzea eta heterosexualizatzea eragiten du», gaineratu du.

Hemen maitasuna berriz ere eszenaratzen da: adibidez, emakume tradizionalarekiko maitasuna, familiaren elementu nagusia. Ikuspuntu horretatik, ikertzaileen ustez, espainiar Estatuko panorama politikoaren korrante kontserbadoreenak aditzera ematen du emakumeak dagoeneko lortu duela bere adimen, askatasun, indar eta independentzia gorena, eta, beraz, ez duela feminismoaren beharrik.

Horrela, UOCeko adituek beren azterlanean adierazi duteenez, maitasuna berriz ere erabiltzen da Espainia kontserbadoreenaren eta feminismoa zein genero-berdintasunerako politikak defendatzen dituzten guztien arteko zatiketa sortzeko.

INDARKERIA MATXISTA

Ikerketaren egileek uste dute espainiar Estatuko ultraeskuinaren diskurtsoak “genero-indarkeria” eta “sexu-indarkeria” bereizten dituela diskurtso anibalente bat mantentzeko. Alde batetik, artikulua zientifikoan adierazten den bezala, balio du feminismoari leporatzeko gizonak kriminalizatzen dituela “genero-



indarkeriari” dagokionez. Bestetik, gizon etorkinak sexu-abusatzaile potentzialtzat salatzeke erabiltzen da. «Natibismoa, nazionalismoa eta xenofobia modu konplexuan lotzen dira maitasunarekin eta indarkeriarekin», ondorioztatu dute ikertzaileek.

«Maitasunak familiarekin, Espainiarekin eta berdintasunaren ideiarekin duen lotura Jeff Hearn soziologo britainiarrak gizonen nagusitasuna deitzen duenaren arabera ger-

tatzen da. Martxan jartzen diren mekanismo afektibo eta politikoei erreparatzen badiegu, gizakiaren defentsa beti presente dagoela ikusten da», gehitu du Pichelek. «Ultraeskuinak familia maite du aitaren nagusitasuna babesteko; herrialdea maite du gizonak lider nazional gisa erreskatatzeko, eta berdintasuna maite du gizonak defendatzeko feminismoaren aurrerapenen aurrean», ondorioztatu du azkenik ikertzaileak.



Itziar ALDABE ARREGI

Donostiako Informatika Fakultateko ikerlaria, UPV/ EHU

Adimen artifiziala eta dislexia

Dislexia duten zenbait umek ergeltzat dute beren burua, ez baitira konturatzen zailtasun bat dutela. Dislexia, gainera, Wikipedian aipatzen den moduan, «gaur egun, irakurtzean ager daitekeen arazotzat hartzen da eta ez dauka arrazoi intelektual, kultural edota emozionalekin inongo erlaziorik. Ez zaio interes edo motibazio faltari lotu behar, ezta zentzumen urritasunari ere». Horrez gain, ohiko arazoa da; populazioaren %10ak dislexia izateko arriskua duela esaten da.

Adimen artifiziala (AA) osasunaren mundua aldatzen ari den honetan, AAK badu zer esanik dislexiaren detekzioan? Detektatu daiteke dislexia, arazo bihurtu aurretik? Umeen eskola-porrotean eragina izan dezakeen arazo hau detektatzeko teknologiarik eskuragarri badago? Galdera horiei erantzuna ematen dihardu Luz Rello ikertzaileak. Dislexia duen ikertzaile horrek, dislexiaren detekzioarako eta tratamendurako AAren erabilera aztertzeari eskaini dio bere ikerketa-bidea. Rello doktorearentzat ezinbestekoa da dislexia modu proaktiboan detektatzea, horrela posible baita arazo bihurtu aurretik neurriak hartzea. Horretarako, azken hamarkadan, berak eta bere kideek hainbat ariketa biltzen dituen joko bat diseinatu eta inplementatu dute. Helburua 15 minutuko erabilerarekin dislexia-arriskua duten haurrak detektatzea da.

Joko hori erabiltzean dislexiadun eta dislexiarik gabeko populazioak bereiztea da asmoa. Jokoaren erabileratik datuak jaso eta horien ezugarriak aztertuz populazioak bereiztea. Teknika eta ezugarri ugari aztertu ondoren, dislexia duten pertsonak egiten dituzten akatsetan aurkitu dute gakoa. Arazoan bertan zegoen irtenbidea. Dislexia duten pertsonak egiten dituzten akatsek patroibatzuk jarraitzen dituzte, hizkuntzan gramatika bat dagoen moduan. Beraz, patro

linguistiko horietan oinarrituz, ariketak sortu eta jokoan txertatu dituzte. Hamabost minutuz jokatu ondoren, dislexia izateko arriskua duten pertsonak hauteman ditzakeen sistema bat garatu dute.

Ariketak egitean erabiltzaileek sortzen dituzten erabilera-datuetan oinarritu dira. Datu sinpleak dira guztiak ere (klik kopurua, denbora...), edozein aplikaziotik jaso daitezkeen ohiko datuak. Datu horietan oinarrituz, iragarpen-eredu automatiko bat sortu dute eta eredu horren arabera, sistemak erabiltzailea sailkatzen du dislexia-arriskua duen pertsona gisa edo dislexia-arriskurik ez duen pertsona gisa. Gaztelararako garatutako jokoa da momentuz, baina beste hizkuntza batzuetara nola hedatu aztertzen ari dira.

Relloren hitzetan, inplementatutako irtenbidea sinplea den arren, horretara iristeko bidea gogorra eta konplexua izan da. Zehaztasun zientifiko handiz egindako ikerketa izan da, sekulako dedikazio eta esperimentazioa eskatu diona. Askotan, horiek guztiak beharrezko bereizgarriak dira zientzia serio eta erabilgarri bat egin nahi badugu. •



Dislexia irakurtzean agertzen den arazoa da. Populazioaren %10ak izan dezake. GAUR8

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



ARQUE ARGAZKIA. ARK-2731_02. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA.

GOGGOMOBILAREKIN, 1966AN GASTEIZEN

1957an Munguia Industrial S.A. (MUNISA) enpresa sortu zen, Bilbon egoitza zuena. Espainiako Industria Ministerioak ezarritako traba guztiak gainditu ondoren, 1962an Goggomobil autoa egiten hasi ziren Mungian, Bavarian zegoen Hans Glas GmbH alemaniarrekin partentiaz akordioa lortu ondoren. Urte hartan 1.100 unitate egin zituzten. Auto horren motorrak Deustun egiten ziren, eta karrozeria zein muntaketa, Mungian. 400 bat langilek lan egiten zuten bertan. Herri horretan furgoneta txiki bat ere egin zuten eksklusiboki, gehien saltzzen zen modeloaren (T-350) aldaera zena. Auto haiek orduko 84 kilometroko abiadura hartzen zuten gehienez ere. Argazkian, bikote bat Goggomobil batekin, Gasteizen, 1966an. Goggomobilak Mungian egiteari 1966an utzi zioten, fabrikatzailearen arabera, auto horren salmenta urriengatik. Goggomobila Mungian egindako urteetan 6.000 unitate atera ziren bertatik. Alemaniako Goggomobil fabrikak 1969an utzi zion modelo egiteari, 1969an BMWk xurgatu ondoren.

bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz

JEONJU

Koreako etxe tradizionalen hiria



hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan

1,50€

eta gainera...

OMAN
HERRIALDE
EZEZAGUN HORI

BUSSACO
BESTE MUNDU
BATEKO LOREA

ELKARRIZKETA
ENEKO REDONDO
BIZIKLETAN LIBRE

MO'OREA
TAHITIK GERTU
BAINA URRUN

TALAI A BIDEA
ITSASOA
MENDIAN

Begirada Flaneur izateko eskubidea **Munduan pasieran** Urte berri on!, inauteriak, Metroan praktarik gabe, Zaryadye, sarkofagoak, Gazan suak, «acullico», Amadea gurutzaontzia... **Arabako errioxa** Mahastietan, liluratuta **Gezurrezko elurra** Elurra kanoiaren bidez sortzen ari dira, kalteei begiratu gabe

